



- **Jose txo Goia-Arube** «Sukalderaino sartu naiz eta jota tradizionalak astindu ditut»
- **Net Hurbil** Haize-errotak egiteko osagai nagusia txinatarren esku
- **Santurtziko dorretxea** Victor Goikoetxearen muralek herriko historia berreskuratu dute

Argia Sariak 2012



Nafarroako hedabideen itolarria

- Esan Erran irratia itxi da
- Urtea salbatzea helburu
- Zero diru-laguntza Nafarroako Gobernutik



**Aste
honetan...**



Beranduegi.tv



► Beranduegi datorren albistegia

Gorka Bereziartua eta Unai Brea kazetariak, astero bezala, ironiaz betetako begiratu zorrotza egin diote azken egunetako aktualitateari.



► Argia Sarietako galdera gaiztoa

Argia Sariak banatu berri ditugu Usurbilen. Bazkariaren inguruan Euskal Herriko aurpegi ezagun asko bildu zirela profitatu genuen, zenbaiti galdera aldrebek batzuk luzateko.



► Asisko Urmeneta

Asiskorekin solasean aritzean, irudiak etengabe heltzen zaizkizu burura. Euskararen maitale gartsua, mingaina eskua bezain trebea du, irudimena borborka eta irri karkaila beti aireratzeko prest.



Bermeoko Atxurra hotelean 2 lagunentzako asteburu pasa bikaina. Beranduegiren Facebook-eko horman bideorik onena jarri eta *atsegin dut* gehien jasotzen duenak irabaziko du hilabete amaieran.



www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azaleko argazkiak:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizaguirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuzana



• **NON ZER** •

2012ko otsailaren 5a, 2.309. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Inma Shara:** «Nortasunak darama artera». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Euskarazko hedabideak Nafarroan.** Lehen estu, orain itolarrian. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 5

Pertsonaia

- **Jose txo Goia-Arrib:** «Hemen harremanak askotan artalde moduan bideratzen dira, otsoaren beldur-edo». REYES ILINTXETA / 10

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 15
- **Ttakun (h)errenka** Hilkutxa hutsak. JOSÉ LUIS PADRÓN / 16
- **Fiskaliteta,** kirolak eta asmakizuna. GORKA MORENO MARQUEZ / 17
- **Txandan** Espektatiba. IGOR ESTANKONA / 17
- «Talotu & txistorratu». ALAITZ VIVES / 18
- **Hiruko txikian** Duela. JOXEMARI OSTOLAZA / 18
- **Zirtak** Munstroa. ANGEL ERRO / 19
- **Bertso berriak** Malkoari. JULIO SOTO / 20

Erdiko kaiera

- **Artea.** Santurtzi lilura-bidez. MIKEL ASURMENDI / 21
- **Napoka Iria:** «Ez dakit Euskal Herrian berde bezainbeste zementu ez ote dagoen». JAGOBA SALVADOR / 24
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** LANDER ARBELAITZ, JON TORNER / 28
- **Abarrak** JON TORNER / 29
- **Ihesi Donaixti (Nafarroa Beherea)-Eltzarre (Zuberoa)** ASISKO URMENTA / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **ARGIA Sariak 2012.** Festa gozoa garai garratzetan. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 39
 - Hauskorrak eta beharrezkoak. XABIER LETONA / 41
 - Merituak ugari. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 42
- **Aeronautika.** Hegan clusterra berriro hegaldatu da. DANIEL UDALAITZ / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Haizearen indarra berriztagarria da, neodimioa ez. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Hator, mutil, etxera.** JOSE IGNAZIO ANSORENA / 50



“Nortasunak darama artera”

Inma Shara

Batutari heldu eta munduan bueltaka dabil.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Marisol Ramirez / Argazki Press

Hara, publikoari bizkarra emanda bizi den bat!

Ez dakit nola ez zaidan bizkarrean begi bat atera. Ikusi gabe gehiago sentitzen delako, agian. Txalo bakoitzaren esanahiaz jabetzen zara, isilune bakoitzak dakarren emozioaz... Magia publikoa arnastean datza.

Orkestra zuzendaria izatea magia egitea dela sinestea nahi duzu, ala?

Musikarekin eta orkestrarekin erabat konprometituta egon, perfekzio tekniko eta inteligentzia emozionala konbinatu, eta aplikazio teknikitik harago doan zatia bisualizatzen duena da zuzendari ona. Horregatik, magiarri lana esaten diogu.

Ez esan auto arrunt batekin Ferrari bat egiteko gai zarenik!

Ferrari batekin auto arrunt bat egin dezake dan bezalaxe. Batuta dantzatzea baino askoz ardura handiagoa da nirea. Burukomin asko dago oihalaren atzean, nire lana ez baita obrak irakurtzea, interpretatzea baizik.

Zuk ere norbere zigilua edukitzearen garrantzia aipatu behar didazu?

Zergatik uste duzu zuzendari bakoitzak obra bera bere erara interpretatzen duela? Zergatik ez dut obra bat orain dela bost urte bezala interpretatzen? Nortasunak darama artera.

Nortasun handiko eta arte gutxiko batzuk eza-gutzen ditut.

Gurean, zigilurik ez daukanak jai dauka. Obra bakoitza bizitza pertsonalaren pentagrametan islatzen da. Obra bera eta teknika erabat barneratuak ukan behar dituzu, zure baitatik

birsortu daitezten. Zure baitatik sortzen ez dena nekez da sinesgarria.

Baina zer da sinesgarritasuna zelofanezko mundu honetan?

Ez akomodatzea, ez pertsonalki, ez profesio-nalki. Obra batek kontzerturo emozionatu behar zaitu, kontzerturo eman behar diozula-ko bizitza propioa, hori delako nostalgia kolektiboan eragiteko bidea. Berebizikoa ez dena kontzertu galdu bat da.

Ados, baina mundu mailako ospea eta kritika-ren laudorio etengabeak dituzuenei dena bar-katzen zaizue.

Ororen gainetik musika maite dugunok ez dugu hori ikusten. Zenbat eta bide gehiago jorratu, orduan eta gehiago geratzen zaizu jorratzeko, ezagutzak zuhurtzia dakarrelako, eta maitasunak begirunea.

Eta zure kontzertuetara joateak kokapen soziala.

Musika klasikoari elitismoa itsasten zaio, baina guri dagokigu musika klasiko denon bihotzetan sartzea, denon bizitzetako prota-gonista bihurtzea. Edozein pertsonaren for-maziorako ezinbestekoa den ekintza pedago-giko eta kreatibo da gurea.

Horregatik entzuten da hain musika klasiko gutxi irrati orokorretan?

Inguru akustiko izugarri oldarkor, agresibo, eta kakofonikoan bizi gara. Gure buru-belarriak mimatzea ahantzi dugu. Noiz oroituko gara doma-doreak musikarekin baretzen dituela piztiak? ■



Euskarazko hedabideak Nafarroan

Lehen estu, orain itolarrian

Esan Erran irratia mutu geratu da, langilea ordaintzeko dirurik ez dutelako. Nafarroako hedabideek urteak daramatzate alanbrean ekilibrioak egiten. 2012. urtea, hedabide batzuentzat behintzat, bereziki gogorra izango da. Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ezinbestekoak dira hedabide txikientzat eta ez dute albiste onik haiengandik. Nafarroakoak aurten ez ditu lagunduko euskarazko hedabideak eta Jaurlaritzak %11ko jaitsiera aurreikusi du.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Dani Blanco

NAHI BAINO GUTXIAGO dira Nafarroan euskarazko hedabideak. Euskara Elkarteen Federazioan, Topagunean, biltzen dira komunikabide gehienak: sei aldizkari, sei irratia eta telebista bat. Aldizkariak denen artean ia 22.000 etxeetara iristen dira eta irratiek 125.000 entzule potentzial dituzte. Erakunde publikoen diru-laguntzak ezinbestekoak dira gehienentzat; Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta udal eta mankomunitateko laguntzen zain izaten dira. Larri askotan ibili badira ere, aurtengoa itotzekoa izango da. Diru-laguntzak gehien mantendu dituztenak udalak eta mankomunitateak izan dira, beste kontu bat da zertan diren Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. 2011n batzuk gustura geratu ziren Jaurlaritzaren laguntzeekin eta beste batzuk aldiz ez. Bierrik Fundazioak adibidez, 15.000 euro gutxiago jasoko ditu 2011koari dagokionez. 2012rako %11ko murrizketa onartua dago euskarazko hedabideen zakuan. Hordagoa Nafarroako Gobernuak jo du, garai onenean 230.000 euro ematetik 2012an zero ematera igaro da. Dena dela, kontuan izan behar da, beharko lukeenaren kontra, hedabideek Jaurlaritzatik diru gehiago jasotzen dutela Nafarroako Gobernutik baino.

Ia hedabide guztiek erakunde publikoen laguntzez gain publizitatea eta bazkidetza

dituzte diru iturri. Finantza-bide propioak indartzeko ahaleginean ari dira zulo ekonomikoa dena baino handiagoa izan ez dadin.

Udalbiltzaren tankerako zerbaiten beharra

Oskar Zapata Topaguneko Nafarroako arduradunak panorama zaila ikusten du 2012rako, eta baita hurrengo urteetarako ere. Egoerari eusteko estrategiak landu beharra azpimarratu du: jendearengana laguntza eske jotzea, erakunde publiko eta alderdi politikoekin hitz egiten segitzea eta diru iturriak lortzeko plangintzak egitea. PSNren jarrera nabarmendu du, “inoiz aldatu beharko du, oraingo jarrerak ez baitu inolako zentzurik”. Guztia gainera ezinbestekotzat jo du garai batean Udalbiltza zenaren antzeko erakundea sortzea, eskualde ahulenak ekonomikoki eta politikoki babestu ahal izateko. “Hori gabe epe ertainera oso-oso panorama beltza ikusten dut Nafarroan, baldintza politikoak aldatzen ez badira”.

ARGIAK hainbat protagonistari galdetu die ea 2012ak nolako itxura duen. Xorroxin irratian, Xaloe telebistan, *Ttapi-ttapa* aldizkarian, *Guaixe* aldizkarian eta Beleixe irratian, eta *Pulunpe* aldizkarian eta emititzeari utzi dion Esan Erran irratian izan gara.



Maitane Burusko Esan Erran irrati-ko esataria 2011 hondarreko emanaldian.

Esan Erran eta Pulunpe Irratia mututu da

Albiste duela gutxi eman dute: Esan Erran irratiak jada ez du emitituko.

Berri txarra ailegatu baino lehenago elkartu gara Ametza Kultur Elkarte-ko bi kiderekin, Felix Alzelairekin eta Maitane Buruskorekin. Alzelaik Jauntsaratsera lagundu digu, han baitago Esan Erran irratiaren estudioa eta Maitane Burusko irrati-ko langile bakarra zain dugu. Hotz egiten du teila-utepen. Berogailua jarritz gero argindarrak salto egiten du eta akabo emisioa.

Bi langile egun osoz aritu izan dira *Pulunpe* aldizkarian eta Esan Erran irrati-ko. Diru urritasun-ko eraginda ordea, lanpostu eta erdi-ekin ari ziren azkenaldian;

ekoizpena berbera zen. Gastuak arintzeko, doako aldizkaria boluntarioek banatzen dute etxez etxe. Nafarroako Gobernuak emandako albistearen ondoren etorkizuna beltz ikusi zuten eta bazekiten bi proiektuak bizirik mantentzea zaila izango zela, ezingo baitzioten eutsi lanpostu eta erdiko gastuari. Hala, *Pulunpe* egiteko lanpostua mantentzea erabaki dute eta irrati orain-koz isiltzea. Asmoa boluntarioen bidez irrati-ko berriro abian jartzea da.

1992. urtean, hiru hilean behin hasi ziren kaleratzen *Pulunpe* aldizkaria. Nafarroako hainbat bai-

laratara zabaltzen zuten, gaur egun bezalaxe: Imotz, Basaburua, Ultzama, Odieta, Anue, Atetz eta Lantz herrira. Orain dela bost urtez geroztik urtean hamaika zenbaki egiten dituzte. Ametza Kultur Elkartea 1996an sortu zen, irrati-aren proiektua mamitzen hasi zenean. Esan Erran irrati-ko Basaburu-ko Udala-ko lizentziari esker emititu du.

220 bat bazkide dituzte, 50na euro ematen dutenak. Nafarroako Gobernuak aurtun arte bi proiektuak lagundu ditu diruz. Eusko Jaurlaritzak aldizkaria laguntzen du, baina ez irrati-ko, udal lizentzia baitu. Udalen konpromisoa berriz, irrati-aren defizita estaltzea izan da, baina denek ez dute hala egin. Udal garrantzitsuenak, Ultzamakoak, ez du eurorik ipini, irrati-ko euskaraz eta gaztelaniaz egitea eskatzen baitu. Publizitatea lortzeko ahalegin gutxi egiten dute, horretarako langilerik ez dutelako.

Tipi-ttapa Autofinantzazioa

Joxe Manuel Irigoienek egin digu harrera Etxalarko egoitzan. Aurtun Lesakara joateko asmotan dira, urte askoan egoitza batetik bestera ibili ondoren han erosi baitute azkenean eraikina. Goizean goizetik ari dira lanean *Tipi-ttapa* aldizkarian eta www.ttipi.net webgunean. Zazpi langile dira, eta oraingoz, ez dute zalantzan jartzen ez aldizkari-aren ezta webgunearen etorkizuna ere.

Joxe Manuel Irigoienek ustez, komeni da azaltzea zergatik bi proiektuak bizirik iraungo duten 2012. urtean. Horretarako urte batzuk atzera egingo dugu. 1990. urtean aldizkaria hamabostekari bihurtu zen eta 1996an Interneteko webgunea sortu zuten. 1998an telebista abiatu zen. Azken proiektua bideratzeko, ordura arteko kultur elkartea fundazio bihurtu zuten, eta

horrela jardura ekonomikoak egitea zilegi zen. Kultur-karia sortu zuten, *Tipi-ttapa* aldizkariarekin eta webgunearekin zerikusirik ez duen egitasmoa, hirugarrenen-tzako lan komertzialak eginez dirua eskuratzeko. Kulturkariaren bidez lortutako etekinak baliu ditzakete aldizkariak eta webguneak eragindako zuloak betetzeko. Hala gertatu zen telebistarekin, urtero 60.000 eurotik gorako zuloa egiten zuen eta “koltxoi” horren bidez aurrera egin zuten... telebista ixtea erabaki zuten arte. Hiru arrazoiengatik itxi zuten telebista: urteroko defizitagatik, digitalean emititzeko lizentzia eskuratzeko aukerarik gabe geratu zelako eta Nafarroako Gobernuak 2009an diru-laguntzarik eman ez zuelako. Kultur-karia helduleku oso garrantzitsua da aldizkaria eta webgunea bizirik mantentzeko. Badu ordea beste bereizgarri bat *Tipi-ttapa*-ko: harpidetza. 1990etik 1998ra bitartean irakurleek eskatu egiten zuten aldizkaria eta etxera bidaltzen zitzairen, doako harpidedun ziren. 1998. urtetik aurrera harpidedunek ordaindu egiten dute

Guaixe eta Beleixe

Diru-laguntzek %25 estaliko dute

Ainhua Urretagoienak kezkatuta hitz egin digu: “2012a inoiz baino egoera larriagoan hasi dugu”. Zulo ekonomikoarekin hasi dute urtea Bierrik Fundazioan, *Guaixe* astekaria eta Beleixe irratia kudeatzen dituen erakundeak. Azken bi urteetan bi albiste txar behinik behin jaso dituzte. 2011n Eusko Jaurlaritzak asko murriztu zien urteroko laguntza. Espero zutena baino 15.000 euro gutxiago jaso zuten. Hobeto esanda, espero zutena baino 15.000 euro gutxiago jasoko dituzte, 2012a hasia dela oraindik iazkoa ez baitute kontu korrontean ikusi. 2012ko diru-laguntzetan ez dute berri hoberik espero, bai baitakite Jaurlaritzaren euskarazko hedabideentzako zaku osoa %11 murriztu dela. Bigarren albiste txarra Nafarroako Gobernuarena izan da:

2012an zero euro. Bi gobernuen eta Sakanako mankomunitatearen laguntzak Bierrik Fundazioaren aurrekontuaren %40 osatzen zuten iaz. Aurten aurrekontuaren %25 baino ez dute estaliko hirurek. Ez dira kexu Sakanako mankomunitateari dagokionez, 2011n zertxobait behera egin bazuen ere laguntzak 2012an mantentzeko apustua egin duelako.

Zulo ekonomiko eta guzti, astekaria, irratia eta bi egunetik behin eguneratzen den webgunea egin behar dituzte. Hamaika langile ditu Bierrik Fundazioak oraingoz. Litekeena da langile kopuruak eta edukiek murrizketa jasatea. Ez dute erabakirik hartu oraindik, baina okerrean langileren bat kendu beharko dute edo hedabideetako bat itxi. Onenean hedabideek maiztasuna aldatu beharko dute, kalitatea mantentzen lanak izango dituztela ere badakite.

Bizirik irauteko bide berrien bila dabilta, edo hobeto esanda, lehendik abian dituzten finantza-bide propioak sendotzen hasiak dira. Lehen aipatutako erakunde publikoez gain, publizitatea eta bazkideak dira diru iturri nagusi. Ahalegindu arren ez dakite zuloa betetzea lortuko duten.

Orain arte aipatu ditugun bost diru iturri horiez gain, Sakanako herritarrek hartu duten jarrera azpimarratu nahi izan du Ainhua Urretagoienak. Sakanarrek hainbat ekimen jarri dute abian bailarako herri guztietan banatzen den *Guaixe* astekaria eta ia sakanar guztiek entzun dezaketen Beleixe irratia bizirik mantentzeko. *Guaixeren* 4.500 ale banatzen dira ostiralero etxeetan doan, Beleixeren entzuleak gutxinaka gora doaz (400-500 inguru) eta webguneak gero eta irakurle gehiago ditu (1.000 inguru).



Beleixeko langileak irratsaioan.

aldizkaria jasotzeagatik. Kuota ez da finkoa, udalek urtero ematen duten edo ez duten diru-laguntzaren arabera herritarrek gehiago edo gutxiago ordaintzen dute. Irigoienek honela azaldu digu bi ardatz horien garrantzia: “Proiektua ez dago zalantzan etxeko lan horiek egin ditugulako eta epe laburrean koltxoia daukagu. Egoera hau izugarri luzatuko bada, koltxoia ahultzen joango da”. “Egoera hau” dioenean Nafarroako Gobernuaz eta Eusko Jaurlaritzaz ari da, besteak beste. 2011n Nafarroako Gobernuak 20.000 bat euro eman zizkien, 2012an batere ez. Eusko Jaurlaritzak 42.000 eman zizkien iaz eta aurten ez dakite zenbat izango den. Udaletatik 52.000 euro jaso zituzten, aurten aurrekontuak ixteko nahiko lanekin dabilta. “Nafarroako Gobernuak utzitako zuloa harpidetzekin eta Kulturkariarekin beteko dugula uste dugu. Buztinezko hankak hain buztinezkoak ez izateko manera bakarra dago, autofinantzazioa eta produktua baloratzea, alegia, ez dago zertan doan eskaini”.



Tipi-ttapa aldizkariak Etxalarren dauka bulegoa.

Xaloea Telebista

Erregulazio Espedientearekin

“2012a salbatuko dugu”, esan digu Joseba Igarabide Xaloea Kultur Elkarteko kideak, Oronoz-Mugaireko estudioan. Xaloea telebistako bost langileek Enplegu Erregulazio Espedientea onartua dute, sei hilabete edo urtebete iraun dezake EEEdak. Ekoizpena berdin mantenduko dute. 1997an sortu zen telebista eta Urdazubin, Zugarramurdin, Baztanen, Malerrekan eta Bertizaran ikus daiteke analogikoan. Momentu onenetan zortzi-bederatzi langile izan ditu. Gaur egun ekoizpen bertsua egiten dute langile gutxiagorekin.

Hizkuntza gutxituentzako Europak emandako dirulaguntza baliatu zuen Xaloea Kultur Elkartek 1997an telebista abian jartzeko, eta 1998an jada egunero emititzen zuen. Igarabidek gogoan du batzuek nola esan zuten proiektua abian jartzea erokeria eta gehiegikeria zela. Bere ustez, esperientziak erakutsi du posible izan dela. Kontua da orain egoera arras katramilatua dutela. Nafarroako Gobernuak laguntzak ezerezean utzi izanak ez dio eragin telebistari, 2010ean eta 2011n ez baitute laguntza horietatik ezer jaso. Hitzarmen berezia dute Gobernuarekin, laguntzak eman beharrean interesekoa duen ekoizpena erosten die Gobernuak. Egoera berezi horretan dago telebista Espainiako toki telebisten zonifikazioan Nafarroako Gobernuak iparraldea (zonalde

euskaldunena) mapatik kanpo utzi zuelako. Beste era batera esanda, Nafarroako Gobernuak hainbat eremutan banatu zuen Nafarroa lizentziak banatzeko eta iparraldea kanpoan utzi zuen. Xaloea legala da analogikoan, baina digitalean ilegal. Haien eskaera garbia da: lizentzia deialdia egin dezatela lehian parte hartu ahal izateko. Oraingo, 2012an ere, hitzarmen bidez moldatu beharko dute Gobernuarekin, nahiz eta Igarabideren ustez, “ekoizpena merke erosten diguten”. Eusko Jaurlaritzak 2011n ez die diruz lagundu, lizentziarik gabeko telebista direlako. Alabaina, aurten nolabaiteko akordio batera iristea espero dute. Tokiko erakunde publikoei dagokienez, Baztango Udalak baino ez die laguntzen. Proiektuari eusteko jendearengana joko dute, eta baita publikitate sarrerak indartzera ere. 2010ean eta 2011n publikitatea lortzeko ekimen arrakastatsua landu zuten. *Herri berri* zuen izena proiektuak eta hala, esate baterako, Leitzara joan eta handik emisio berezia egin zuten. Bertako publikitatea erakartzeko baliatzen zuten saioa. Adibidez, Leitzako ikus-entzuleek uhin bidez ezin dute jarraitu telebista, baina bai xaloea.com-en bidez. Horrelako aukerei aurten ere bide emango diete.

Aurten arnasa hartuko dute, baina borrokan segi beharko dute Xaloea Kultur Elkartek eta telebistak.



Lehen planoan telebistarentzat laguntza eskatzeko esku-orria.

Xorroxin irratia

Urtea salbatuko dutelako kontent

Elizondon egin dugu hitzordua Josetxo Apezetxearekin, duela urte gutxi erosi zuten eraikinean. Bi egoitza dituzte, bata Elizondon eta bestea Lesakan. Euskalerrria irratia ez bezala, hauek badute emititzeko lizentzia. Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerre-

ka eta Bortzirietan entzuten da irratia. Iaz 30 urte bete zituen.

Iratia 1981ean sortu zen, irati libreak bogan ziren garaian. Boluntarioek hasitako proiektuak kutsu “profesionalagoa” hartu zuen urteen poderioz eta kontratupeko langileak hasi ziren irratia kudeatzen. Gaur egun Xorroxin Kultur Elkarteak kudeatzen du. Oraindik irati libreen aztarnak mantentzen ditu eta irratia ez du zuzendaritzarik, modu asanblearioan hartzen dira erabakiak. Zortzi langile ari dira, nahiz eta ez egun osoz.

Nafarroako Gobernuaren albistea eta krisi ekonomikoa tarteko 2012a nola datorkien galdetu diogu Apezetxeari: “Arrunt kontent gara, asmoari nolabait eutsi egingo diogulako”. Gobernutik zero euro jasotzeak ez du irrati kolokan jarriko, aurrekontuaren %10 inguru baita. Eusko Jaurlaritzatik bikoitza baino gehiago jasotzen dute, nahiz eta ikusteko dagoen aurrekontuaren %40 inguru da. Udal eta mankomunitateek ere laguntzen dute, batik bat, Baztango Udalak eta Bortzirietako eta Malerreko mankomunitateak.

Xorroxin irratia errentzat ez du itxura txarra 2012ak, baina badakite ezin dutela lo hartu: “Gobernuak ez du ezer eman- go, Jaurlaritzak behera egingo du. Jendearengana eta udaletara murrizketak iritsiko dira eta publizitateko sarrerak ez dakigu mantendu ahal izan- go ditugun”.



Xorroxinen Elizondoko irati estudioa.

Babeslea: Errenteriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@errenteria.net



ERRETERIAKO UDALA



UDAL EUSKALTEGIA

Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net

Jose txo Goia-Ar ibe

«Hemen harremanak askotan artalde moduan bideratzen dira, otsoaren beldur-edo»

Saxoaren soinuak sortzen duen gau giro bildu horretan, hara non, ezustean, atmosfera gurutzatzen duen fandango, biribilketa, jota edo Sanferminetako doinu baten arrastoa antzematen da. Jose txo Goia-Ar ibe, saxo jotzaile-alkimista bihurriaren magia puntua, zalantzarik gabe.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Donezteben sortutako Iruñeko semea zara. Nola da hori?

Aita Berakoa zen, maisua. Oibarrera joan, hango emakume batekin esposatu eta handik gutxira Doneztebeko eskolan eman zioten plaza. Han sortu nintzen, baina urte eta erdi nuela Iruñera joan ginen bizitzera, Jarauta karrikara lehenbizi eta Kale Nagusira ondoren. Orain Zirizan bizi naiz, baina ozenki erraten ahal dut ni Iruñekoa naizela eta gainera Iruñea maite duten horietakoa. Etxeak, karrikak eta esparru fisiko guztia maite dut. Edertasunzalea naiz, esteta, eta Iruñea ikaragarri gustatzen zait.

Euskaldunberria?

Bai. Aitak ez zekien euskaraz. Lau gauzatxo baino ez. Niri erakutsi zidan hitz bakarra “zortzigarrena” izan zen. Gu hamaika anai-arreba ginen eta aitak esan zidan: “Seme: galdetzen dizutenean zenbatgarrena zaren zuk ‘zortzigarrena’ erran behar duzu”. Nire aita-txik bai bazekiela eta baita frantsesez ere. Horregatik txikitatik nik beti esan dut bi hizkuntza hauek ikasi behar nituela. Gaztetan, 18-19 urterekin, euskara ikasten hasi nintzen. Sagrario Alemanek eman zizkidan klaseak, ikaragarri irakasle ona da eta oso oroitzapen onak ditut. Garai hartan nire kabuz Zubietara joan nintzen, Malerrekara, etxe batean ikastera. Hori benetako murgiltzea izan zen niretzat. Uretan sartu nintzen ia igerian jakin

gabe. Juanikorena izeneko familiak izugarri ongi hartu eta babestu ninduen. Hori eskertuko diet nik beti.

Gerora irakasle ere aritu zinen.

Bai, Nafarroako Gobernuak antolatutako helduentzako ikastaroetan, baina utzi nuen erabaki bainuen musikara dedikatzea. Oibarreko nire amak orduan esan zidan: “*Ay hijo, y cuando quieras volver a la Diputación ¿si se te olvida el vasco?*”.

Bi soldata mota daudela diote: materiala eta espiritual. Musikari profesionala izanda ez dut lehen bezalako egonkortasun ekonomikorik baina soldata espiritualarekin, aldiz, arrunt aberatsa sentitzen naiz. 2002az geroztik klaseak ematen ari naiz berriro, baina

Nortasun agiria

1959ko martxoaren 12an Donezteben sortutako iruindarra da Jose txo Goia-Ar ibe, saxo jotzaile eta konpositorea. Gazte-gazterik hasi zen txistua jotzen, ondoren gaitari putz eginenez Euskal Herriko bide bazterrak eta bere musika sakon ezagutzeko parada izan zuen. Egun, jazza eta musika tradizionala inork bezala harilkatzen dakien musikari aske eta ausarta da.





musika eskolak dira oraingoan, Musikene goi mailako kontserbatorioan.

Eta musikarekiko zaletasuna?

Nire aita txistularia eta txistuzalea zen. Orfeoian ere noiz edo noiz kantari aritu zen. Hamaika senideen artean ni naiz musikara dedikatu den bakarra. Nire etxean bazegoen txistu bat mahai gainean eta ukitu eta baita jo egin zuen bakarra ni izan naiz. Txistua ikasi nuen Iruñeko Kontserbatorioan. 12-13 urte nituelarik gaitarekin zaletu nintzen. Etxe parean gaita edo dultzaina jotzaile bat bizi zen eta niri ikaragarri gustatu zitzaidan tresna hori. 15 urterekin hasi nintzen gaita jotzen eta lauzpabost urte ibili nintzen harathonat, Nafarroako herri guztietan barna, ia juglarrak bezala. 19 urterekin, oster, sentitu nuen gaita, tresna bezala, txikia gelditzen zitzaidala eta zerbait gehiago nahi nuela. Horrela hartu nuen saxofoia ikasteko erabakia. Ikasketak Iruñean hasi eta Donostian bukatu nituen. Karrera bukaerako saria eman zidaten. Niri jazz ikaragarri gustatzen zitzaidanez, hasi nintzen lagunekin ikasten eta jotzen. Sebastian taldearekin toki eta taberna guztietan ibili ginen. Kanpora atera nahi eta lau urtez Nafarroako Gobernuari

Jota

“Hemen jota estereotipatu egin da topiko bihurtu arte eta badakit gizartearen hainbat esparrutan jotak maite dituzula esatea ez dagoela oso ongi ikusia, ez dela guay, baina nik maite ditut”.

beka eskatu baina ez zidaten ematen. Azkenean Madrildik heldu zitzaidan Parisera joateko aukera eta hara abiatu nintzen 33 urterekin. Bertan asko ikasi nuen eta hona itzulita *Auñamendi* diskoa ekarri nuen besapean, hango lagun frantsesekin egina. Horrela abiatu zen nire bakarkako ibilbidea. 96an kaleratu nuen nire lehen diskoa eta orain duela gutxi, zazpigarrena.

Parisen lau urte eman zenituen. Emankorrak?

Pariseko egonaldiak ikaragarri ongi markatu ninduen. Uste dut Parisen badirela bi motako etorkinak: bata, han dagoena arrautza fritituak beti gogoan dituela, hango gauzak maite nahi ez dituen; eta bestea, hango gauzekin topo egin eta bizitu nahi duena. Lehen beti ari da gogoratzen zeinen ongi bizi den bere sorterrian eta zeinen gaizki Parisen... Eta aldiz hona etorrita beti erraten du zeinen ongi dauden gauzak Parisen eta zeinen gaizki hemen. Horregatik Parisen nengoela hemengo jendearekin ahalik eta gutxien egotea erabaki nuen. Lekuz aldatu eta bidaiatu egin nuen nik. Gero Iruñera itzulita, ikusi nuen gauza asko lehen uste nuenetik oso desberdinak zirela. Gatazkaren inguruko iritzia adibidez arrunt aldatu nuen. Musikalki ere izugarritzko aldaketa izan nuen eta, oro har, han ikasi nuen hemengo gauzak maitatzen. Anitz maite nituen batzuk bazterrean utzi nituen eta bertze batzuk aldiz, nabarmendu. Egunero Paris hiriaz akordatzuten naiz. Oso frantsesa sentitzen naiz. Frantses kulturak dituen hainbat arlo ikaragarri gustatzen zaidalako.

Zeintzuk, adibidez?

Hemen giza harremanak askotan artalde moduan bideratzen dira, otsoa agertuko ote den beldur-edo. Eta nik artaldean edo koadrilan ibiltzea ez dut gustuko. Han harremanak zuzenagoak dira, buruz buru, *tête à tête*. Lasaiagoak, builarik gabe. Hemen lau, bost edo sei pertsona izan mahai baten inguruan eta bizpahiru elkarriketa egiten dira aldi berean. Bat zerbait interesgarria esaten ari denean beste bat sartzen da... Frantsesak horretarako desberdinak dira, harremanak aberatsagoak dira, sakonagoak, beldurrik ez dute, gehiago ligatzen dute sexu harremanak ere garrantzitsuak direlako... Ezagupen jatorragoa da, jatorra zentzu horretan, ez eguzki tendidukoa. Niri frantses puntu hori ikaragarri gustatzen zait.

Ene semea erraten diot: “Beñat, Euskal Herria eta euskaraz gain bada bizitza, ez ahaztu!”. Eta hori da neure buruari Parisetik itzulita erran niona. Nire azken diskoa, adibidez, *En jota*. Gaztelaniaz. Zergatik ez? Nazio-

nalismoaren mundu honetan badira osagarri asko txikiago egiten gaituztenak: mugak, bel-durra, espainiar kutsua duen ororen kontra egotea beti... Nazkatuta nago. Ni euskalduna eta espainola naiz. Nire amak gaztelania eman zidan eta maite dut. Nire ama-hizkuntza da. Eta zer? Nik gauza hauek ozenki esaten ditut. Iparraldeko euskaldunak, oro har, ez dira lotsatzen frantsesak izateagatik, zenbait errefuxiaturen seme-alabak kenduta. Bada 80ko hamarkadan zintzilikaturik gelditu den jendea. Madrilerako bidea hartu eta muturra makurtzen dutenak Espainiara joaten direlako, eta bidaian bizpahiru esaldi euskaraz egin eta gero gaztelaniara pasatzen direnak. Lotsa emangarria, benetan. Nafarroan bada horrelakorik metaka. Nik tren horretan irakurtzen ahal dut Sánchez-Ostizen azken liburua (espainolez) eta era berean euskaraz erantzuten ahal diot mugikorreko dei bati, horrek, adibidez, ongi sentiarazten nau.

Nahasketa sormen iturria ere bada, ezta?

Gauzak sortzeko irekia izan behar dela uste dut nik. Jotaren diskoaz, agian, baten batek pentsa dezake marketin kontua dela jota, fadoa, flamenkoa... nahastea. Ez. Ez da hori. Hau bihotzez egina da. Parisen izan nuen oso irakasle ona, Jean Guerin, piano jotzaile ez zirenentzat piano klaseak ematen zituen. Ez dakit nola suertatu zen, egun batean, kikilduta, kontatu nion gaztetan Euskal Herriko, Pirinio aldeko musika eta tresna tradizionalekin aritua nintzela eta berak, hunkituta, esan zidan ikaragarritzko pribilegioa zela hori. Esan zidan horrekin guztiarekin zerbait egin behar nuela. Nik informazio hori guztia, tradizio hori guztia nire zainetan nuen eta hitz horiek izan ziren piztu ninduten nolabaiteko suziria. Beti eskertuko diot hori esan izana.

Zergatik itzuli zinen?

Agian ez nintzelako hango inorekin maitemindu... Horretaz gain Paris oso hiri garestia



Nazionalismo ona eta txarra

“Pío Barojak zioen karlismoa irakurtzen eta abertzaletasuna bidaiatzen sendatzen direla. Nire ustez badira bi nazionalismo mota: ona eta txarra, kolesterola bezala. Nik ere txarra dena bidaiatzen sendatzen ahal dela uste dut. Nik neronek, neurri batean, bizi izan dut hori”.

da. Musikari bezala ibiltzea oso zaila da, Europako, munduko musikari hoberenetakok dira hor eta lehia bortitza eta gogorra da. Niri Iruñea ikaragarri gustatzen zait eta Pirinioak maite ditut. Hemengo bizimodu on hori gustatzen zait, ez tabernaz taberna oihuka ibiltzearena.

Mendizalea zara, etxe ekologikoa eraiki duzu... Naturarekiko amodioa ere barne-barnean duzu.

Iruñean bizi nintzela asteen behin etortzen nintzen Etxauri bailara honetara, Zirizako eskailerak izeneko tokira, zehazki. Haitzen arteko bide bat da. Toki ederra, miresgarria. Lamien tokia. Behin ikusi nuen orube bat salgai zegoela eta aukera aprobetxatu genuen. Naturan bizitzea, hiritik hamabost minutura, horixe zen nahia. Tarteka hirira, artaldera, joan behar izaten dut. Francisco Javier Irazoki poeta lesakarrak zioen paradisuaz gozatu ahal izateko, tarteka, haietatik ihes egin beharra dagoela. Bestalde batzuek uste dute hemen, naturaren erdian egoteagatik, inspirazioa errazago etortzen dela, baina



San Nikolas IKASTOLA



IKASMAILAK (1-16 urte)

- Haurtzaindegia
- HH, LH eta DBH
- Gela Bereziak: txikientzako logelak, psikomotrizitatea, liburutegia, Mundi Lab, laborategia, teknologia, musika, informatika - ADSL (ekipo guztiak internetera konektatuta)

ZERBITZUAK

- Haurtzaindegia laborala (2-5urte): 07.30-18.00
- Jantokia
- Autobusa (Getxo, Berango, Urduliz, Leioa, Areeta...)
- Aniztasunari arreta berezia: psikologia, auxiliarrak, terapeutika irakasleak, orientatzaileak...
- Liburutegi gidatua
- Eskolazkanpokoak: ingelesa, pianoa, solfeoa, baleta, trikitixa, koral, kirolak...
- Udako eskaintzak: haurtzaindegia, egonaldiak, ingelesa ikastaroak...

Arene Azpi 15 · GETXO (Bizkaia) · T 944 305 478 · F 944 305 477 · ikastola@sanikolas.net



“Zure irudimena irekitzeko tresna egokia da pianoa. Ahoan ere, xuxurlaka edo txistuka, zure barneko partitura garatzen duzu. Lanerako tokirik egokiena ez da fisikoa, metafisikoa baizik”.

nik, Jon Alonso idazleak bezala, uste dut inspirazioa ipurdian dagoela, hau da, lan egiteak ematen dizula ideia eta ez inguruan duzunak.

Nola ikusten duzu panorama musikala gaur egun?

Oso gaizki. Musikariok behar dugu jo. Musikiariok, Mendebalde honetan jende gehienak bezala, behar dugu egunean hiru aldiz jan. Kultura gauza ez beharrezkoa bezala ikusten da eta krisi garai honetan oso zaila dago dena. Kulturari egiten zaizkion mozketak sortzaileon kalterako dira. Agian artistok beti ari gara negarrez, baina egoera, gaur egun, oso kezagarria da. Diru publikoaren kudeaketa daramaten horiek kulturaren pedagogia egin beharko lukete, dagoena jendeari eskaini, baina gehienetan ez dute egiten. Frantzia, esate baterako, sentsibilitate handiagoa dute horretarako. Adibide txiki bat: orain dela bost egun 35 bat e-mail bidali nizkien beste hainbeste Nafarroako kultur teknikari eta kultur zinegotziri nire aurkezpena egin. Informazioa eta egin dizkidaten kritikak igortzearekin batera, nire azken diskoaren ale bat doan bidaltzeko eskaintza egiten nien. Ez dut erantzun bakar bat ere jaso. Eta pentsa zeinen erraza den ordenagailuaren bidez “ados” edo

GALDE SHORTA

Zazpi diskoez

Auñamendi: Xabier Letek erran zidan disko honi buruz: “Jose-txo, gu hilik, diskoan aipatzen dituzun tokiek iraunen dute, lan ederra!”.

Eunate: Isiluneak existitzen direlako, musika dugu.

Herri-miña: Zuri-beltzean zen partituran koloreak ikertu eta –agian– sortu nituen.

Ilhargi-min: Bildotsez moztututako otso asko badira Euskal Herrian. Disko hau ez nuke inola ere berriz eginen. Esperientzia txarra izan da. Pierre Topet Etxahünek burua altxatuko balu... A! Ze tuntuna ni! Fini!

Los pendientes de la reina: Agian poesia gehien duen lana.

La Orquesta jamalandruki: Orgasmoa.

En Jota: Eguzkia, egia, Mediterranea, *iiAupa esa jotica!!*

“ok” erantzutea, nahi izanez gero. Hiru segundo. Nik ez dut halako gauzei erre nahi, baina gauzak ozenki esan behar dira. Tamalgarria da baina orain mezenasgorik, maitekiro laguntzen dizun inor ez dago. Orain mezenak marka komertzialak eta ban-kuak dira.

En jota zure azken diskoan ezohiko moduan ematen dituzue jotak. Hau ez al da sakrilegio moduko bat Nafarroan?

Bizi garen lur honetan oso atxikirik gaude gure tradizioei eta muturra okertzen duenik ere bada zerbait ukituz gero. Jotak halako ikono, halako marka du egun hemen Nafarroan. Ni sukalderraino sartu naiz eta jota tradizionalak astindu ditut sormen lan bat egiteko. Hori harrigarria izan da jende askorentzat.

Zu jotak jota egon zara betidanik.

Musika tradizionala beti maite izan dut nik, hunkitzen nau eta beti dut hor poltsikoan gordeta, handik abiatzeko beste gauzak egite-rakoan. Harmonikoki jotak ez dira oso aberatsak, baina kantatzeko moduak, melismak, tinbrea... propioak ditu, fadoak edo koplak, adibidez, ez dituztenak. Bolumen aldetik oso ozen kantatzen da eta horrek ospe txarra eman ohi dio. Baina jota emeki ere abestu daiteke, haurtxo bat besoetan bazenu bezala, adibidez. Arantxa Diez jota kantariak beti esaten zidan sentazioa zuela atzera joan garela eta kendu digutena berreskuratu egin dugula. ■



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



SARKOZINISMOA

MUGARIK
EZ ?

EZ HORIXE
GOARDIA ZIBILA
ETA JANDARMEEN
ARTEAN !

EUSKAL
PRESOAK
HURBILDU ?

BAI BA...
ESPAINIARÄ
HURBILDUKO
ZAITUZTEGU !

TTAKUN (H)ERRENKA

Hilkutxa hutsak

E

spañoles: Fraga... ha muerto". Ironiarekin esaten dut, baina ez da egia. Pentsatu, ez sinestu! Bizirik dirau

oraindik. Francok dirauen bezala. 1966. urtean AEBetako enbaxadorearekin batera Palomaresen egin zuen bainuak hilezkortasunaren erdia eman zion Manuel Fragari. Arma nuklearrak kutsatutako bainuarekin batera, Fragari benetako hilezkortasunaren beste erdia "demokraziak" eman dio. Fragak, 1997an, Xuntako presidente kargua enegarren aldiz hartu zuenean, 5.000 gaita-jotzaileen doinuaz lagunduta egin zuen, Konpostelako Santiago hiriko Obradoiro plazan. Bertan da Santiagoko katedrala, Santiagorako erromesentzako helmuga. Konpostelako Done Jakue katedraleko botafumeiroak, erromesen mezatan eta bestelako ekitaldi garrantzitsuetan katedralaren nabe batetik bestera ibiltzen den intsentsu-ontzi erraldoiak alegia, jatorri xumea eta, batez ere, praktikoa du. Santiagorako erromesaldia benetako bide bihurtu eta milaka erromes erakartzen hasi zenean, katedralean hainbeste pertsona biltzeak usain txarra sortzen zuen. Horixe bera egin du "demokraziak" Manuel Fraga Iribarnerekin, botafumeiroaren lana, haren "espíritu liberalari" zerion usain txarra kendu arte arindu eta estali. "Hiltzaileak zintzoak balira bezala gelditzen badira eta fanatikoak heroi gisa, hemen jende guztiak nahi izango du fanatiko edo terrorista izan", Basagoitik Bilduri zuzendu zizkion hitzekin akordatu naiz. Euskadiko PPko presidentearen esanetan "Fragari esker, Espainiak hobera egin zuen eta ultra gutxiago daude". Aznarrek nabarmendu du Fraga patriota eta estatu-gizona zela. Rubalcabak esan du "zerbitzari publiko aparta" zela, eta "arazo askori" konponbidea eman ziela.

CONCETTA PROBANZA



Jose Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

Ba oso ondo. Fragak ibilbide akademikoa, profesionala eta politikoa egiteko denbora nahikoa izan zuen, diktaduraren aurka borrokatu ziren milaka pertsonen ez zuten halako denbora-eperik izan. Fragak Espainiako trantsizioan "giltzarri" izateko aukera izan zuen, diktaduraren aurka borrokatu

ziren milaka pertsonen ez zuten halako ahalbiderik izan. Fragak etxeko ohean lasai asko hiltzeko suertea izan du, diktaduraren aurka borrokatu ziren milaka pertsonen ez zuten halako suerterik izan. Milaka pertsonen ez zuten Fragak izan zituen denbora, aukerak, suertea eta eskubideak izan, Standard&Poor's kalifikazio agentziak herrialdeen kreditu kalifikazioa AAA mailatik BB mailara jaisten duen hala moduan, Frankismoan Fragak eta bere "gaita-jotzaileek" diktaduraren aurka borrokatu ziren milaka eta milaka gizon eta emakume gizaki mailatik subespezie baten maila bat baino behe-rago utzi zituztelako. "Hilkutxan ez zegoen inolako arrasto biologikorik", Legezko Medikuntzaren EAEko Institutuko zuzendari Carlos Cuberok baieztatu zuen haur lapurtuen kasuen harira Donostiako Polloe hilerrian ireki zuten hilkutxan ez zela sekula gorpuzkinik egon. Azken egunetan, epai-

leen aginduz, hiru hilkutxa ireki dituzte. Gure demokrazia jaioberria lapurtu izanaren susmoa genuen, eta familiek epaitegietan horiek irekitzea eskatuta dute. Susmoa egia bihurtzen ari da. Hiru hilkutxetan emaitza bera izan da: hutsak zeuden, ez zegoen demokraziaren arrastorik. Nik susmo hori beti izan dut, ez zela ezer azalduko hilkutxetan, Fraga bezalako sendagileak, emaginak, anestesistak, epai-zak, mojak, erizainak eta lur-emaelek historia lapurtu egin zigutelako. ■



Gure demokrazia jaioberria lapurtu izanaren susmoa genuen, eta familiek epaitegietan horiek irekitzea eskatu dute.

Susmoa egia bihurtzen ari da.

Hiru hilkutxetan emaitza bera izan da: hutsak zeuden, ez zegoen

demokraziaren arrastorik

Gorka Moreno Marquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Fiskalitatea, kirolariak eta asmakizuna

Jakina da kirolari gehienek euren aberria era sutuan maite dutela eta edozer gauza egiteko prest daudela euren lurraldea salbatzeko, edo gutxienez, zergak ordaindu behar dituzten unera arte. Horiek horrela, honen aurrean egoera ezberdinak daude.

Lehenengoa, enpresa bat sortu eta pertsona fisiko bezala tributatu beharrean pertsona juridiko bezala egitea. Ondasun eta diru-sarrera guztiak enpresaren bidez kudeatuta emaitza fiskalak ezin hobeak dira, eta enpresa honek galerak baldin baditu zeresanik ez... Baina badira beste batzuk, enpresak ordaindu behar dituen zergak gehiegizkoak direla uste badugu, beti dago aukera gure abertzaletasunaren baitan Monakon edota Suitzan gure egoitza jartzeko. Esan ohi den bezala diruak ez du aberririk eta kirolari batzuen moralitateak ere ez, baina tira. Mota honetako adibide asko izan dugu estatuan, eta gurean ere –izenik ez dut emango– izan dugu kasuren bat edo beste. Hortaz, ez pentsa arazo honen aurrean euskaldunok txertatuak gaudenik.

Kontrako adibidea badago ere, alegia gure bandera etengabe musukatzen ez daudenak laguntzeko trikimailuak. Horrela, iragan garaian, kanpoko goi-exekutiboak erakartzeko –hain modan dagoen etorkin kualifika-



IÑIGO AZKONA



Esan ohi den bezala diruak ez du aberririk eta kirolari batzuen moralitateak ere ez



tuen argudioa– euren egonaldiaren lehenengo sei urterentzat %24ko tipo berezia asmatu zen, ohikoa den %48aren –orain zertxobait handiagoa– orde. Noski, goi-exekutiborik ez da etorri baina zirrikitu legal ezin hobe ireki da kanpokoak diren kirol-izar distiratsak bereganatzeko. Adibide zehatz bat jartzearen, Cristiano Ronaldok %24a ordaintzen du bere errenta aitorpenean, *mileurista* batek ordaintzen duena gutxi gorabehera.

Ardura duten instituzioek esan dezakete, neurri hauen guztien bidez, kanpora joango ziren dirutzak edota etorriko ez zirenak mantendu edota erakarri egiten direla, eta hortaz, azken emaitza positiboa dela diruari begira. Fiskalitatean adituak direnen ustetan, gauzak ez dira hain automatikoak eta beste faktore askok eragiten du fiskalitatean eta honen bidez lortzen diren diru-kopuruetan, errealitatean adibide askok erakusten du hori. Gainera, argudio horiek enpresa batean sinesgarritasun apur bat gehiago izan dezakete, baina ez erabat salbuespen diren goi-mailako kirolariek. Hortaz, hemen beste gauza batzuk daude jokoan.

Eta azkenik asmakizuna: ezetz asmatu emandako informazioarekin Cristiano Ronaldok noiz utziko duen Real Madril? ■



TXANDAN

Igor Estankona



Gaur esan dute berriro. Administrazioen arteko bikoizketak –hitza nork bikoiztu ote du?– aztertzen jarraitzen du Gasteizko Legebiltzarrak. Dirua gastatzen jarraitzen dute, beraz, harantza-honantzatan eta gasolinatan, garbian igual ezer ez ateratzeko. Iñigo Aranbarriren *Hizlandia* baterako terminoa dirudi, *bikoizketak*, sano oraingoa da, ekonomikoa.

Baina benetan liluratuta naukana Idoia Mendiarren eufemismo bat da. Bueltaka dabilkit, ezin burutik kendu. Funtzionarioen kidegoari aplikatuko dizkioten murrizketak ez ei dira eskubideen gainekoak,

Espektatiba

baizik eta espektatiben, esperantzen gainekoak. *Espektatiba*: ordutegi zentzuzko baten iguripena, lan eskaintza baten ilusioa, gaixoaldi-bajan orain arte aitortu zaien bezala kobratzeko itxaropena, erretiroaren ametsa...

Neure artean pentsatu dut sailburuek ere esperantza izango dutela ondo tratatuak izateko ospitalean, lehorrera ekar ditzaten urak eroanez gero, kudea ditzaten euren zergak artez, hezi ditzaten euren umeak eskola finetan, eta lagun ditzaten erortzen badira inoiz pobrezia eta espektatiba falten atzarretan. ■



Alaitz Vives

KAZETARIA

“Talotu & txistorratu”

Inoiz ikusi al duzue herriko anbulategia non kokatu erabakitzeke bile-
ra deialdirako neonezko kartelik?
Nik ez. Hala ere, Las Vegas estilo-
ko udal komunikazioak gurean
jarraitzaile larregi dituela esango nuke.
Ados, ipini kartel koloretsuak eta eskuko
gida satinatuak neonezko kartelak aipatu
ditudan lekuan.

Ikuskizun kultura da Udalen komuni-
kazio ekimenen aldetik atentzio gehien
jasotzen duena. Herriko jaiak direla,
antzerki emanaldiren bat, kontzertuak...
Ados, kartelak jartzen bikainak gara
gurean. “Mozorrotu zaitezte”, “egin dan-
tza”, “sartu eta begiratu beste hau”, “ondo
pasa”, “talotu eta txistorratu zaitezte!”.

Oraindik ere ez dut udaleko egunero-
ko erabakietan parte hartzeko gonbitea
egiten duen Las Vegas estiloko kartelik
ikusi; informazio hori udal bandoetan
plazaratzen da, letraz jositako paper gris
ulerkaitezetan. Zorte apur batekin, herriko
informazioa jorratzen duen aldizkari edo
egunkariaren atalean aurkitu ahal izango
duzu, zenbatekoa den udalak hitz eman
duen azken kreditua.

“Komunitatea hila dago”, “parte har-
tzeko kultura galdu egin da”, “jendea
indibidualista da”, “inguruan gertatzen
denarekiko interesa galdu du” sarriegi



DANI BLANCO



Komunikazio estrategia
izateak herritarren
parte-hartzea errazten du,
bultzatzen du, eta are
gehiago esango nuke,
pentsatzen dut
komunitatea sortzen
eta kohesionatzen
lagun dezakeela



entzuten ditugu horrelakoak. Parte hartze-
ko moduak aldatu egin dira, interesa hor
dago, ikusi eta jaso nahi duenarentzat,
baina askotan erosoagoa da komunitatea-
ren axolagabekeria faltsu horren atzean
ezkutatuz, ikuskizun kulturalen soilik zen-
tratutako udal komunikazioa egiten jarrai-
tzea.

Komunikazio estrategia izateak herrita-
rren parte-hartzea errazten du, bultzatzen
du, eta are gehiago esango nuke, pentsa-
tzen dut komunitatea sortzen eta kohe-
sionatzen lagun dezakeela.

“Atea irekita dago, eta ordutegia publi-
koa da, aurkitu nahi gaituenak badaki non
gauden” edota “informazio guztia web-
gunean daukazu” bezalako hitzek, parte-
hartzea edota hartu-emana boikoteatzen
dituzten jarrera ireki-faltsuak dira.

Publikoa, hartzailea, inoiz baino gertua-
go dago, Internet eta sare sozialak baliat-
zen baditugu. Tresna baliagarriak izan
litezke gainera, eta halaxe dira, interes tal-
deak detektatu eta haiekin harremana
mantentzeko. Komunikazioa ez da propa-
ganda, propaganda usainak hartzailea
uxatu egiten du. Komunikazio
estrategia zaindua garatu eta
aurrera eramateak herrigin-
tzan jarduteko beste modu bat
dakar. Sinetsita nago. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



urte asko Menotti futbol
entrenatzaile argentinarrari
futbol jokoaz idatzi liburuan
irakurri nion, taldea musika orkestratzat
hartzen zuela, eta bere lana jokalariek bate-
ra jotzen jartzean zetzala. Horretarako
bakoitzari egokien zihoakion zeregina zehaztea zela gai-
tzena, taldeak berea ongi beteko bazuen. Madrigo Berna-
beu zelaian Real Madrilek Barçaren kontra jokatuta-
koa ikusi ondoren, Guardiolen partituran harritu
ninduen. Ez zen hainbeste jokalarien kokapenak Barça-
ri balio berezia ematen ziotela, orkestrako zuzendariak
aukeratutako errepertorioak baino. Real Madrilek musi-

Duela

kari bikainez osatu txaranga zirudien,
zuzendariak hautatu eta prestatu erreperto-
rioak taldea txaranga eta joleak, solistak
barne, txosnatako musikariak izatera kondentzen
zituen. Barçako Abidalek sarturiko bigarren golari erre-
paratzea aski da, partidan lau bikote ezberdinek jotako
pasarte bera izan baitzen Messi eta Abidalen artean
bururatutakoa, gola izan zena. Halere, holako partitura
jarraitzeko belarri finekoa behar du, sor-
tzaile lana ulertzeko berorren isplitutik hara
ikusteko begi onekoa, jardunen estetika efi-
kaziaz integratzeko gauza. Menottik arra-
zoi: futbola ere arte ederra izan liteke. ■



ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Munstroa

Gaizkileak mundu guztiak alde egin arte itxaron zuen bere ezkutalekutik atera eta bere krimena gauzatzeko. Familia oneko semea zen, baina desohoreak izena isilarazi du. Antza denez, neskaren edertasunak liluratua, egun osoak ematen zituen berari beha, isilean, zaintzaileen susmo txarrik piztu gabe. Gerora, behin gertatuta, zentzua hartzen du gaztearen hainbat portaerak, kasurako, biktima izatekoaren izena zuhaitzetan, hormetan tema zoroan idatzi izana. Bada, gaua lagun, beste guztiok, atek ongi itxi ondoren, lotan geundela, eraso burutu du, atzetik burutu ere, ederraren harrizko irmotasunak, ikusten duzuenetz, ezertan atzerarazi ez duela. Orain bera betiko markatuta gelditu da”.

Margaret Thatcherri buruzko film berrik, Meryl Streepen mimetismorako dohainaz gain, eszena bat gelditu zait gogoan. Lehen ministroa izandakoari medikuak “nola sentitzen den” galdetzen dio; ordura arteko dementzia arrastoak eta “amonatasuna” alde batera, oldartzen zaio esanez horixe dela gaurko gaitza, mundu guztia, politikariak jendearen sentimenduez arduratzen direla, inor ez pentsamenduez edo ideiez. Ideologia hitza saihezi da. Burdinazko Damaren politika sorgorra, XX. mendeko historiaren sarraskiak kontuan hartuta, batek tentazioa eduki lezake ideien kontra lerrokatzeko.

El sueño de la razón produce monstruos. Goyaren grabatu bat da, zeinaren izenburua esaera zaharraren mailara igo den. Maiz, gehienetan gaizki aipatzen da, arrazoimenaren gehiegikerien kontra. Seguruenik gaztelaniaz “*sueño*” hitzaren polisemiagatik. Goyaren irudiaren parafrasiak argi uzten du loaz ari dela, ez ametsaz; arrazoitik bereizteak sortzen ditu izugarrikeriak, eta ez ideietan ameslari sakontzeak. Gaizki ulertuek eta



JOSU SANTESTEBAN

interpretazio okerrekin gauza asko esan ditzakete garai batez.

August Rodinen *Pentsalaria* eta *Calaisko Burgesak*, kopia egiaztatueta, Iruñera ekarri dituzte egunotan, Gazteluko plazara, Gasteizen egon ondoren. Jakin min apur bat sortu dute. Hasierako egunotan, behintzat, jendea pilatzen da, batez ere, *Pentsalari* eza-gunaren ingurura. Datu aski ezezaguna da jatorrizko izena *Poeta* zuela, hau da, gaurko iruditerian behintzat, hausnarrera baino intuiziora lerratzen omen den izaki inspiratu batena. Eskulturarekin ezarri dudana lehen kontaktuak, lehen kontaktu bisualak, bestelako ezustea ekarri dit.

Gazteluko plazara, Xabier kaleko eskaileretatik gora, sartu naiz eta nire aurrean brontzezko erraldoia ageri da, erabat bizkarrez. Bizkar luze-zabala eta, eserita egon arren, aurreranzko jarreragatik, ipurdi puska ederra. Rodinen lan hau ia ikono pop bat izan arren, milaka alditan kopiatua, omendua eta parodiatua, aitortu behar dut ez nuela atzeko alde eza gutzen. Harriturik, geldiro hurbildu naiz. Bitartean, ume batzuek aurea hartu didate, korrika, “goazen munstroa ikustera” oihuka.

Praxitelesen Venusen eskultura Knido hiriko tenplu batean zegoen. Luziano Samosatakoak dio jainkosaren atzealdeko edertasunak ere ikusi, irudia bere osotasunean begietsi nahi zuenarentzat aukera bazegoela eskatu eta atzealdeko ate batetik sartzeko. Hala egin eta, luze miretsi ondoren, ipurmasail batean orban bat haute-man dute. Guztiarekin ere, Praxitelesen zuhurtzia goraiatu dute, perfekzio biribilean ere hutsak egon litezke onartzeagatik edo, bestela, marmolaren akatsa gutxien nabari litekeen aldean ezkutatzegatik. Tenpluko zaintzaileak, ez bata ez bestea, egiazko istorioa kontatu die. ■

Gazteluko plazara, Xabier kaleko eskaileretatik gora, sartu naiz eta nire aurrean brontzezko erraldoia ageri da, erabat bizkarrez (...). Harriturik, geldiro hurbildu naiz. Bitartean, ume batzuek aurea hartu didate, korrika, ‘goazen munstroa ikustera’ oihuka



irudia:

Antton Olariaga



BERTSO BERRIAK

Julio Soto

Malkoari



GALDER IZAGIRRE / XDZ

I

Jaio berri den ume txiki bat
beso artean, goxoen...
Lehendabiziko aldiz hasi da
negarrez, ohikoa omen...
Gelan aditu dira Lazkao
Txikiren hitzak ondoren:
“Negarrez nola hasi zerade
bizitzen hasi baino lehen?”.

III

Bertsolari bat final batean,
oholtza gainean, serio...
Buruz-buruko bat jokatu du,
frontoia bertso jario,
txapela jantzi diote, txalo,
oihu pila datorkio...
Malkorik ez du isuri baina
begiak busti zaizkio.

V

Maiteminduta dagoen mutil
batek, neskari aitortza.
Neskak: “Orain ez, agian noizbait”.
Puntadun erantzun motza
pasatu dira hilabeteak,
iritsi da negu hotza,
lehortu dira malkoak baina
odoletan du bihotza.

II

“Piruleta bat, piruleta bat!”
Lau urteko neskatoak.
Aitak: “Ez, beste egun batean”
Zilipurdiak, saltoak...
Neskari irten zaizkio atzo
irtendakoen kalkoak,
oinazearen forma daukaten
gezurretako malkoak.

IV

Aitona joan zaion biloba
loreak heltzen bi esku,
pauso laburrez hilerriraino
azal-zuri, barru-estu...
Badaki pasa behar zuela
(adinak bueltarik ez du).
Alferrik ari dela negarrez...
Baina ezin du saihestu.

VI

Malko gazia, malko gozoa
min hartzea, poz hartzea...
Egin behar ez dena: malkoa,
itxurakeriaz sartzea,
baizik lotsari atek itxiz,
beldurrari oldartzea,
datorrenean ateratzeko
oztoporik ez jartzea.



DOINUA: Haurtxo polit bat



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Artea

Santurtzi lilura-bidez

Victor Goikoetxea (Urretxu, 1965) margolari muralista Hernanin bizi da, bertan du lantokia. Bere muralak ezagunak dira munduan: Titanic-en eskailera edo Donostiako Aquariumaren ateak adibide bi baino ez dira. Santurtziko Torre Jauregian egindako horma-irudia ezagutu dugu berarekin. Danel Bringas kultur zinegotziak ireki dizkigu Dorretxeko ateak.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

MURALISTA HONEN BESTE DEFINIZIO BAT eman digu Danel Bringas zinegotzi (EAJkoa) eta gidariak: “Victor Goikoetxea memoria historikoaren berreskuratzaileria izan da gurean”. Ederlana dagoen tokian gaude, dorretxearen eskailera nagusian, eraikinaren kubo txikian: “Jauregia bi kubo dira: Torrea eta eskailera nagusia. Erdiko kubo, kubo nagusiaren barnean dago”.

Iraganera egin dugu oraina ulertu aldera: udal bulegoak hemen egon ziren 1990era arte. Artean, eraikinak termitekin eraso latza jasan zuen. 2008an, berregite lanak hasi zirenean, Torreak bost solairu zituen. Orain hiru solairu nagusi ditu. Sarrerako solairuan erakusketa aretoak daude. Bigarrenean, berriz, kultur ekimenerako guneak. Udal kulturako Serantes izeneko bulegoek eta interpretazio zentroak –hirugarrenean eta ganbaran– inguratzen dute Goikoetxearen artelana.

Santurtziko historia islatzea zen egitasmoa: “Victorri ez genion beste baldintzarik ipini”. Baita termino horietan jaso ere margolariak: “Espazioa bikaina iruditu zitzaidan udal ordezkariak zuten asmoa gauzatzeko”. Santurtziarren asmoa Arte Ederrak ikasitako Bringas zinegotziaren ardurapean garatu zen. Torrearen errestituzio integrala egitea erabaki zuen udalak. Garai berrira egokiturik, iraganaren idiosinkrasia agertu behar zuen lanak. Halaber, Torrearen hezurdurari eta artisautzari eutsiko zion berritze estrukturala egin nahi zuten. Setakeria handia eta artearekiko guraria behar dira eraikin zaharrak berreskuratzeko, eta areago, jauregiko kubo txikikoaren proiektuan sartzeko: “Bai horixe! Normalean espazio hau dekoratzeko koadro-



ak erosteko joera baitago, kito” diosku udal kultur kudeatzaile honek. Zorionez, ez da dorre honen kasua izan.

Baserria, meatzaritza, arrantza

Muralak hiru gai islatzen ditu: baserria, meatzaritza eta arrantza. Xedea herri honen memoria historikoa berreskuratzea izaki, espazioa ikus-tean orain arte zertutako lanaz harago joateko aukeraz ohartu zen Goikoetxea: “Proiektua aurkeztean ‘ez dut pintura soila egingo, hainbat gai landu eta nahastu nahi nuke’ esan nien. Eta bozetoak egiten hasi nintzen”. Eskailerako lau muralak Hernanin eginak daude: “Lanaren %95a estudioan egin nuen. Gainerakoa, sabaiaren berrestrukturazioa egiteaz batera hemen amaituta dago”. Zortzi hilabete luze eman zuen gaia ikertzen: “Lana ondo egiteko lehen urratsa gaia ongi ezagutzea da. Duela 50 urteko Santurtzi irudikatu behar nuen. Baserria eza-guna nuen, baina arrantza, eta meatzaritza batez ere, oso arrotzak zitzaizkidan”.

Lau muralak bat eginik kuboan

Dorretxe erdiko kuboak lau muralak hartzen dute. Nagusiak bederatzi metroko luzera du, arrantzaleen omenezkoa. Bigarrenak baserria du gai nagusia; hirugarrena meatzari-er buruzkoa da. Laugarrena beste hiruren arteko nahasketa da. 100 metro koadroko obra da guztira: “Bozetoak egitean, adin eta sen guztietako jendea hartu nuen kontuan, baita artea ikasi duena ere. Zerbait ulergarria egin nahi nuen, baina ez garaikidea”. Santurtziko langileriaren lanabesen arrastoa agertu nahi zuen: arrantza-ontzi baten sareak, baserriko zurak edota meategiko hautsa bera: “Santurtziko elementu singularra arrantza zen, beraz, pareta handiena arrantzari eskaintzea eskatu zidaten. Arrantzaleen kofradia berri zuten garaian ekin nion. Herriarren elkargune nagusia zen (arrantzaleak eta erosleak...), lonja zoragarria zen. 1960ra arte bete-betean iraun zuen arrantzaren historia birsotu nuen, sardinerak tarteko. Portugaleteko zubi zintzilikatua ageri da hondoan. Hori ez da aldatu...”.



Baserriarren mundua ageri da eskailera-buru nagusian. Antigoalekoa da baserria, pertsonaiak berriz, egungoak. Neska Hernanikoa da, adibidez. Baserria Santurtzikoa da, Mamariga auzoan dago, zutik dagoen azkenetakoa: “Denbora eta lana... biak islatzen ditu egur zati horrek” diosku Goikoetxeak. Muralak karehondarrak dauzka, eguzkilore handia ere, gure arima gaiztoak uxatzeko edo; gurutze txikiak ere alboan ditu. Kristautasunak lagatako seinaleak. Balandin Enbeitaren bertso bat ere badago, baserriari kantatua: “Txirua dozu izakeria, alan be urrezko bizitza; ez-eukiaren laguna zara, baña zoriz aberatsa”.

Zugastietako meatzeak

La Arboleda edo Zugastietako meategiek burdinak herrian izan zuen indarra agertzen dute. Muralik ausartena da. Abstrakzioak berebiziko indarra hartzen du, badauka arte figuratibotik ere haatik. Materialek osatzen dute murala: burdinak, baita zinkak eta bestelako mineralek ere. Santurtziko meatzeak “mendia jaten egiten ziren” zen. Mendia arrakalatu ahala burdinazko barruak zabaldu zituzten langileek: “Meatzehorietako pareta bat irudikatu dut, meatzari eta burdina ateratzeko makina. Meatzeen izenak ere idatzi ditut. Mural gogorra da, lana ere hala zelako”.

Danelen berbak dira hurrengo hauek: “Jendeak uste du Santurtzi arrantzale herria izan dela, baina hiru ogibideak funtsezkoak izan dira. Mea asko Santurtzin atera zen, ez Gallartan edo Zierbanan soilik”. Goiko auzoak baserri-rik bizi ziren, baina eurek eta euren ideiek atera zuten lehen minerala.

Ibilbide landuaren ondorioa

“Lan bati ekitean, zalantzak ugari dira” diosku Goikoetxeak. Lanaren parte bat alirizira geratzen da. Artistak buruan daukan ideia eta horren muntaia bi gauza dira. Muralista honek esperientzia dauka obra handietan, ohituta dago, baina hortik emaitza ikustera alde handia ei da: “Estudioan zatika ikusten nuen obra: lientzoak, zurak, sareak, sokak... Bozetoak egiteak ematen dit sosegua, oina-



Santurtziko sardinerak (Kofradian) eta meatzariak islatzen dituen irudiak. Egilea (Victor Goikoetxea) artikularen lehen argazkian dago. Ondoko orrialdean, goiti-behera: Dorretxea. Lehen solairuko harrizko arku zaharra. Bigarreneko artisautza noblea. Azkenik, Torreko goi-sabaiauren zuraska paregabea.

rria horiek dira”. Kartoi mehean egindakoko bozetoek lana izango dena hurbiltzen du artistaren ideia: “Ez naiz lanaren muntaia ausaz egin zale, inprobisazioa ez zait gustatzen, nire inprobisazioa estudioan amaitzen da”.

Artelanaren kritika

Lanak oso ondo funtzionatu duela diote solaskide biek. Lortutako giroa oso egokia dela eraikinarentzat. Lanaren aurrean kritika egitea ez da erraza, Danelek eman digu bere iritzia ordea: “Victorren lanak irakurketa jarraitua dauka, ez zara galtzen, hormirudiak ez dira paretetan itsatsiak, zatiak izan arren orekatua da”. Murala figuratibo errealista da, Santurtziko historiarekin oso ondo egokitzen dena: “Lanaren kontzeptua material eta teknologia berrien uztarketa da. Argazkiak mikro-filmen bidez txertatu ditut. Tatuajea ere erabili dut. Teknika berriak zurean daude inpregnatuak. Teknologia tradizioarekin uztartu dut teknika berrien bidez, tradizioa materialean integratuz. Ez nuen murala irudi tradizionalaren isla soilak izatea nahi” gehitu du Goikoetxeak.

Gotele egitetik muralak egitera

Goikoetxeak *gouttelette* egiten zuen, pintura-irakasle batek “nik ez dakit nola eta non, baina zu

artetik bizi zaitezke” esan zion arte: “Ni ez naiz arte eskoletatik pasa [klaseak hartzen eta ematen ditu urtero, halere], ez naiz teorikoa. Eta ez dut mundu horretan sartu nahi, ez dut nire lanetan dekodifikagailua erabiltzerik nahi berau ulertzeko. Nire ibilbidea sentsazioek eta senek markatuta dago. Ikuslea hunkitu nahi dut. Jendea ez dadila lanaren ondoan ezaxola geratu, eta ez dezala ere ‘ez dut ulertzen’ esan. Ez naiz lanaren azalpen asko ematearen aldekoa, bat bera barik hobe”.

1.760 urtekoa da Torre. Goikoetxearen muralen gainean, sabaian, Jauregiaren leinua ageri da: Markes de Casa Torre. Linaza eta Ormaza markesaren ezkutua beiraterian egina dago. Torrearen berritze lanek 2.000.000 euro kostatu zuten. Artistak, berriz, 70.000 euro jaso zuen bere lanaren truk. Bere esanetan, egile ospetsu batek hamar bider gehiago kobratuko luke: “Lan hau edozein sortzaileraren ametsa da, alabaina. Espazio hau zuretzat libre uztea... Gainera, ni diruz ere ondo ordainduta sentitu naiz”. Artelan hau orain arteko bere ezagutza osoaren kulminazioa da, bere esperientziaren goia: “Ez baita pintatzea soilik izan, herri baten historia ikastea eta berreskuratzea izan da”.

Danel Bringasen berbak hauek islatzen muralaren ingurumaria: “Ez pentsa erraza denik udaletxean tamaina honetako egitasmo batean denek bat egitea. Zorionez, denek bat egin genuen —orain ez dago sosiketa—. Jauregi osoa berritzean diferentziak izan ziren, murala egitean ez. Herritarrak muralaren alboan adi geratzeko lorpen handia da”. “Zenbat boto eman dizu Victorrek” esan diogu maltzurki Daneli: “Asko” erantzun digu irribarrez. “Tira, apostua itzela izan zen, eta emaitzak poztasun handia eman digu, herritarrei atsegin zaie. Muralak jendea liluratu du. Victorri lanerako eman genion askatasuna ere ageri da muralean”. ■



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertzea 28, beheko solairua 1-2
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz

Musika

«Ez dakit Euskal Herrian berde bezainbeste zementu ez ote dagoen»

2005ean elkartu zirenetik Miren Narbaiza eta Ander Mujika jo eta jo ibili dira ia geratu gabe gitarrek bizkarrean hartuta. Napoka Iriaren lehen lan luzean taldearen izaera markatu duen zuzeneko kutsu hori mantendu nahi izan du bikoteak. *Lehertarazi Edifizioak* (Bonberenea Ekintzak) diskoak zuzenekoaren eta estudioaren arteko mugak hautsi ditu.

JAGOBA SALVADOR

Argazkiak: Dani Blanco

Lehertarazi edificzioak da diskoaren izena. Hirietan sentitu daitekeen itomen horretaz hitz egiten duzue. Ez zarete oso hirizaleak ezta?

Miren Narbaiza: Ez dugu asko hausnartu horren gainean, ez pentsa. Baina bai, gizarte honek hartu du norabide bat, atzera bueltarik gabea dirudiena.

Ander Mujika: Abiadura handia, dena bata bestea-ren gainean, zementua, ez dugu denborarik... Letrak esaten duen moduan ez diogu argitasunari ere pasatzen uzten, saturazio moduko bat da.

M. Narbaiza: Pixka bat da kontzientzia hartze hori, gure buruari esatea, "begira non bizi garen, benetan hau da nahi duguna?"

A. Mujika: Eta nire ustez mentala ere bada, jendearen pentsatzeko modua, dena karratua da.

M. Narbaiza: Gainera ez duzu zertan hiri handietara joan hori sentitzeko. Denok uste dugu Euskal Herrian dena berdea dela baina... ez dakit berde bezainbeste zementu ez ote dagoen, eta gero eta gehiago!

Bi gitarra baino ez dituzue erabiltzen normalean. Noiz-

bait faltan bota al duzue base erritmikorik? Edo zuen bereizgarri bezala ikusten duzue sinplizitate hori?

M. Narbaiza: Bueno, pentsatu dugu, baina ez da ezinbestekoa. Bi gitarra baino ez erabiltzea gure bereizgarri bat badela esango nuke, urteak daramatzagu honetan eta zerbaitegatik gaude horrela, Ander eta Miren izaten. Kontua da ez dugu-la deskartatzen beste gauza batzuk egitea eta askotan galdetu izan diogu geure buruari nola geldituko ote den kanta hau edo hura elementu berriak sartuta.

A. Mujika: Beti saiatzen gara biren artean kantari osotasun moduko bat ematen eta berezko indarra. Kanta batek zerbait transmititu behar badu, ahalegintzen gara daukagun gutxiarekin hori lortzen. Baina pentsatu izan dugu horretan, eta gogoia dugu musikalki gauzak probatzeko. Agian egunen batean...

Miren, jaso al duzu heziketarik ahotsari dagokionean?

M. Narbaiza: Ez... musika eskolan hasitakoa naiz Ander bezala, baina korotik aspaldi alde egindakoa...



A. Mujika: Hori ez da batere punkia...

M. Narbaiza: Gitarrak apurtzen genituen musika eskolan! (barreak) Ez, orain serio, hori izan da nire musika heziketa bakarra. Orain serioago hartu nahian nabil, nik ere baloratzen baitut daukadana eta ez dut galdu nahi. Badaukat asmoa zerbait lantzeko, baina oraindik ez naiz hasi. Hala ere, autodidakta izan arren nabaritzen dut jotzeari esker teknika pixka bat hartu dudala. Lehen segituan afonika jartzen nintzen, orain ez. Lehen paso egiten nuen, baina orain kontzientea-goia naiz eta ahotsa landu nahi dut.

Galdera behartua: nola jaio zen Su ta Garren bertsioa? Estilo erabat ezberdina izan arren oso naturala geratu da.

A. Mujika: Egun batean gitarrarekin hasi ginen kanta hori jotzen, broma modura...

M. Narbaiza: Nik uste dut egun batean bertsio heavy bat probatzeko gogoia sartu zitzaigula, eta *Jaiotze Basatia* hor zeukan Anderrek apalean ondo gordeta. Hautsa kendu genion eta esan genuen, "hau! Kantu honek dauzka estribillo ederrak!"

A. Mujika: Gero ukelelea erabiltzea okurritu zitzaigun eta bertsioari forma pixka bat eman genion.

Duela ez asko Japonia aldean izan zineten. Zer asmo bira honetarako? Atzerrira joateko planik bai?

M. Narbaiza: Hasieran hemen inguruan ibiltzeko asmoa dugu. Nik dakidala ez dugu Kongora joateko asmorik!

A. Mujika: Asmoa diskoa aurkezteko kontzertu batzuk gehiago ematea da, eta ondoren beste gauza batzuk probatzea, edo kanta batzuk konposatzea... Oraingoz ez dugu kanpora joateko asmorik.

Zer moduz joan zen Durangoko azoka? Zer nolako harrera edukitzen ari da diskoa?

"Ez genuen estudioko produkzio bat nahi, zuzeneko puntu hori hartzea nahi genuen"

ANDER MUJIKA

M. Narbaiza: Guk kontzertuetan saltzen ditugu disko gehienak, hori argi dago. Lehenengo aldia da Durangon egon garena eta ikusita zelako konpetentzia dagoen han, ondo joan zen, bai. Esperientzia kristorena izan zen azoka beste aldetik ikustea.

A. Mujika: Bai, gainera diskoa uztailean atera genuen. Ez genuen espresuki Durangorako atera, lehenagotik ere saltzen joan da. Hala ere, Durangoko harrerarekin pozik eta gustura.

Nola sortu zen zuen lehen lan luzea zuzenean eta jendaurrean grabatzeko ideia?

A. Mujika: Urteak daramatzagu jotzen jada eta oso gutxi grabatu dugu. Beti esaten dugu zuzeneko taldea garelako, estudiantik ez gara ia pasa. Horregatik, nolabait zuzenekoetan egin garenaz, horrela grabatu nahi genuen. Ez genuen estudioko produkzio bat nahi, klaketarekin, ondo landuta eta abar. Zuzeneko puntu hori hartzea nahi genuen. Baina zuzeneko diskoa grabatu beharrean, nahi genuen diskoa bera izatea zuzenean. Hau da, prestaketa estudioko grabaketa egiteko modukoa izan zen, baina publikoarekin.

Diskoak denetarik du. Kanta berriak, zahar bat, bi inprobisazio, bertsioa... eta gainera zuzenean. Taldea denaren irudi orokor bat sortu nahi izan duzue?

M. Narbaiza: Agian ikusi daiteke modu horretara ere, zeren gu bertsio zaleak bagara, inprobisazio zaleak ere bai... eta horrelako gauzak zuzenekoetan gertatzen dira. Egia esan ez genuen horretan gehiegi pentsatu, baina bai, izan daiteke gure argazkitxo bat.

A. Mujika: Bai, gainera ez genuen hasieratik pentsatu disko bat egitea, zentzu konbentzionalan. Ez genuen pentsatu zenbat kanta sartuko genituen, nola joango ziren diskoan, edukiko zuen ideia... Orain arte egin duguna grabatzea izan da nolabait. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkora duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Liburuak

KRITIKA

Abenturazko istorioa


Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle

DUELA 26 URTE argitaraturiko komikiaren berrargitalpena dugu liburu hau. Mixel Muruak testuaren egoitzapena egin du eta Galtzagorri elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera bultzaturiko *Klis-klasikoak* sailaren barruan argitaratu da.

“Abrite portas klis-klas”, Arratibelen ipuinetako esamolde hartatik abiatuta *Klis-klasikoak* izena duen bilduma honetan euskarazko haur eta gazte literatura-kanon bat sortu nahi da, gurean klasikoak, gure literaturako obra esanguratsuak plazan izateko asmoz sorturiko bilduma. Egungo merkatuan literatura berria, nobedadeak soilik baitaude presente; eta duela urte batzuk argitaratutako kalitatezko liburu asko eta asko erdi galduak dauzkagu. Alde horretatik pozgarria da “Klis-klasikoak” sail honek egindako lana kalitatezko lan horiek berreskuratzeko; eta gainera, ohiko topikoetatik at, plazaratu dituzten lehen lau aleetan

oso liburu ezberdinak aurkitzeku: ipuin bat, haur folkloretik abiatutako testu laburren bilduma, nazioarte-



Indianoa.
Gidoia: Gregorio Muro.
Ilustrazioak: Francisco Fructuoso..
Alberdania, Erein, Igela.
56 orrialde. 15 euro.

ko ipuin klasiko baten itzulpena eta komiki bat. Azken hori dugu, hain zuzen, *Indianoa* lana.

Komiki hau XIX. mende erdi aldean dago kokatuta (1849ko urrian abiatzen da istorioa, San Franciscorantz doan itsasontzi batean) eta Kaliforniara doazen bi euskaldunen kontaketa dugu. Hasieratik bertatik abentura kutsua duen bidaia dela nabari dezakegu; itsasontzia lehorreratzerakoan bertan hasten baitira gure bi lagun abenturak: barkuan bertan eraso eta preso hartzen dituzte, lehorreratzerakoan salaketa faltsua leporatu, ondoren traizioa jasan... Juliok eta Bernardok hamaika abentura bizi dituzte azken honen anaiarekin bat egin aurretik. Mendebaldeko istorioen kate bat dugu liburua, lapurrak, ganaduzaleak, urre bilatzaileak eta beste hamaika pertsonaia agertzen dira di-da batean irakurtzen den liburu honetan.

Euskal irakurleak, gainera, gure arbasoek Ameriketara egindakoen berri ere izan dezake. Zer nolako lanak, ohiturak, eguneroko borrokek eta zailtasunak izan zituzten aurrera egin ahal izateko. Alde horretatik abenturazko komiki honek ere badu gure nortasuna eta gure historiaren berri.

Liburuaren hitzaurrean Murok adierazten du liburu hau hobeto ezagutzen laguntzen duen hainbat pista. Hor dago, esaterako, R. L. Stevensonen eragina, Mendebal Urrunari buruzko filmak, baina baita, ares-tian aipatu bezala, euskal ukitua: egilearen familiaren historia, hain zuzen (nahiz eta azken hau, batik bat *Justin Hiriart* komiki ale zoragarrietan ageri).

Zalantzarik gabe, *Indianoa* gure literaturako perla bat da, lehendik ezagutzen genuenok berriro gozatzeko aukera izan dugun bezala irakurle berriek esku artean izateko moduko liburu zoragarria.



Bat-bateko **12 talde**
Idatzizko **25 talde**
15 saio
300 parte hartzaile
Bertsolaritza herrikoia

LIGAK
Otsailak 3, 4, 5:
Gasteiz, Zalduondo, Aramaio, Gasteiz
Otsailak 10, 11, 12:
Amurrio, Gasteiz, Agurain, Aramaio
Otsailak 24, 25:
Gasteiz, Gasteiz, Oion, Izarra
FINALERDIAK
Martxoak 10, 11
Zigoitia, Araia
FINALA
Martxoak 24
Aramaio

www.arabakotxapelketa.org

argia

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Fregoli.
Inoren Ero Ni.
Bidehuts.
Iraupena: 21'28".
12 euro.

Tempo eta giro desberdinak: freehardcorejazz

BAP!-EKO Abrego anaiek eta Drake sortutako taldea beti bereizi da Euskal Herriko rokean zizelkatuta geldituta hiru hizkietatik. Are gehiago, orain, taldean hiru horietatik Okene abeslaria bakarrik dago. Anarirekin egindako ibilbidea tartekatuz, bueltan dira transformismoaren sortzaileari omenaldia egin eta musikarekin disfrutatzen jarraitzeko. Lehenengo diskoan lantzen zuten erritmo biziko post-hardcoretik arrastorik gelditzen bada ere (freehard-

corejazz Okeneren hitzetan), soinuak eta giroz asko ireki da taldea, izugarri. Tempo pausatua, inprobisazioa, jazz puntua, gitarra distorsionatuak, noisea, rocka... eta finean sudur puntan jartzen zaiena, batez ere giro desberdinak landuz. Oraingoan ere euskara nagusi bada ere, bada gaztelaniazko kanta eder bat. Eta, jakina, biniloarekin CDa oparitzen dute.

www.myspace.com/inoreneroni

Okene Abrego - Inoren Ero Ni

«Zuzenean grabatzen dugu eta bat-batekotasuna islatzen saiatzen gara»

Kantak ez dira ontzen utzi behar? Hobe da bat-batekotasuna?

Azken diskoetan hala egin dugu. Bat-batekotasuna islatzen saiatzen gara, ahal den fresko eta biziena. Musika gehiena zuzenean grabatzen dugu.

Zer kontzeptu landu nahi izan duzue bukatu berri duzuen trilogia edo trigolia honekin? Eta orain zer dator?

Umorearen kontzeptua. Orain ahal den guztia jo nahi dugu, aurreko diskoarekin oso gutxi aritu ginen jendaurrean eta irrikan gaude.

Sindrome, anomalia eta gaitz bereziek zuen interesa pizten dute. Ez da hala?

Halaxe da; umorearen beste adibide bat da. Eroen munduak betidanik piztu du ene interesa.

"Nire hizkuntzak ez du jada mundua esplikatzen nahi". Hainbeste kanta ida-



tzi ostean, zer garrantzia ematen diezu hitzei? Heltzen dira hartzailera?

Beti eman diot garrantzia hitzei, asko, agian gehiegi, baina barruraino iristen zaizkit nire ideiekin bat egiten duten hainbat, eta abesteko unean bizi egiten ditut. Hitzak ez dira heltzen, horretarako gu gaude.

Anarik ere lantzen dituen tempoetan gero eta erosoago aurkitzen zarete? Adibidez, *Canto de un funeral* ederrean...

Bai, Marianoren ekarpena da. Ez

dugu aurreiritzirik musika egiteko, eta hau beste adibide bat da. Tempo desberdinekin lana egitea maite dugu.

Mikelek taldea utzi du eta Guantxek ordezkatu. Mikel taldeko enborra izanik, zer emango dio ipurterre donostiarrak taldeari?

Mikel taldeko enborra eta arima izan da. Zaila zen bera gabe Inoren irudika-


tzea. Baina Guantxek lasaitasuna emango dio taldeari zuzenekoei begira; buru-belarri ari gara entseatzeko eta bere maila handia erakusten ari da. Eta, gainera, uni-bertso bat gehituko diogu Inoreni, oso aberasgarria izan daitekeena: Mariano pop-rocketik dator, Borja noise-rocketik, Guantxe punk eta rocketik eta ni neu freehardcorejazzetik. Hori guztia ondo nahasten badugu... auskalo.



Ezpalak

LANDER ARBELAITS / JON TORNER

Zure herrian 'ARGIA emanaldiak' antolatzen lagundu nahi?



ARGIA EMANALDIK ekimena abian da. Taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan hileroko dokumental bat proiektatzen ari gara, guztiak euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin. Helburua Euskal Herri osoan kalitatezko lanak zabaltzea eta euskarazko ekimenen inguruko bilguneak bultzatzea da. Proiektua irekia da eta herritarren partehartzea ezinbestekoa da proiektua zabaltzeko. Dagoeneko 25 elkarte baino gehiagok egin dute bat ekimenarekin. Zure herrian ekimen hau antolatu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan: 943371545 edo sustapena@argia.com helbidean. Proiektatzen diren lanak ARGIAren dokumentalen kanaletik hautatzen ditugu, eta aldeztu aurretik ARGIAk ezartzen du hilabete bakoitzean zein izango den Euskal Herriko hainbeste txokotan era bateratua proiektatuko den lana. Hilabetero elkarte guztiak lan bera emititzen dute, zabalpen handia eta bateratua eman asmoz. Urtarrilean 1978. urteko Iruñeko San Fermin jaietako gertaerak eta German Rodriguezen erailketa gogora ekartzen dituen *Oroitarria* proiektatu zen herrietan; eta otsailean *Lucio*, igeltsero eta anarkista nafarrari buruzko dokumentala emitituko da.

Ia 300 bertsolari Arabako Kuadrilla Arteko Txapelketan

JUAN MARI JUARISTI Arabako Bertsozale Elkarteko presidentek azaldu duenez Kuadrilla Arteko Txapelketari "astindua" eman asmo diote aurtentzen. 296 parte-hartzaile izango ditu. Buruz buruko txapelketan parte hartuko duten taldeak, hamabi guztira, hiruna kuadrillako lau taldeetan banatu dituzte. Hiruko horiek elkarren artean lehiatuko dira otsailaren 3tik 5era, eta ligaxka moduan 10, 11, 24 eta 25ean. Multzoko bakoitzeko lehen sailkatua finalerdietan sartuko da. Lehen finalerdia Zigoitien jokatu da, martxoaren 10ean. Bi irabazleek martxoaren 24an egingo dute topo, Aramaion, final handian.

Bizkaiko Foru Agiritegian bisita gidatuak egingo dira

BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOAREN funtzionamendua ezagutarazteko bisita gidatuak egingo dira asteartero (18:00etan), orain arte publikoarentzat itxita egon diren geletan eta lan-eremuetan. Foru Aldundiak jakinarazi duenez, "era honetako instalazioetan hartu behar diren segurtasun-neurrien haritik, bertan balio itzeleko ondarea gordetzen baita, bisita hauetarako plaza-kopurua mugatua izango da: 10 pertsona bisita bakoitzeko". Parte hartzeko derrigorrezkoa izango da aurrez 944 067 737 telefonora deitu edo ondare.arettoa@bizkaia.net helbidera mezua bidaltzea. "Bisita honen bidez, publikoak gure historiako 600 urte baino gehiagori buruzko ezagutzaren oinarriak bistaratu ahal izango ditu, agiririk zaharrenak Behe Erdi Arokoak baitira", dio Diputazioak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Abarrak

JON TORNER


Ipar Koreari buruzko dokumentalik onena?

Pyongyang. Guy Delisle.
Astiberri (2007, 3. edizioa).
176 orrialde, zuri-beltzean.



PYONGYANG Ipar Koreako hiriburuko aireportuaren orrialde osoko marrazki batek irekitzen du Guy Delisle quebectarraren komikia. Tamaina bereko irudi gehiago tarteatzen ditu autoreak liburuan, gehientsuenak eraikin eta monumentuenak, herrialdearen handitasun hutsaren erakusgarri direnak. Aireportuko edifikazioaren goialdean Kim Il Sung lider handiaren (1912-1994) erretratuak ageri da. Maiz ikusiko dugu haren irudia liburu osoan, pasa den abenduaren 17an zendu zen Kim Jong Il buruzagiarenaren alboan. Delisle 2003an izan zen Ipar Korean, TF1 telebista kate frantziarrak eskatuta, marrazki bizidun batzuen gainean bi hilabetez SEK (Scientific Educational Korea) zentroran lan egitera joan zenean. Orduan bizi eta ikusitakoak jaso ditu komikian, trazu soileko zuri-beltzeko marrazkien bidez: etengabe begira dituen bi agintari ia-bikien erretratuak, errepide bazterrak txukuntzen dituzten “boluntarioak”, kapitalismoaren (Ameriketako Estatu Batuen) sinboloekiko (argazki kamera, irratia, musika aparailu eta abarrekiko) mesfidantza, gauz pizten ez diren farolak, sekula itzaltzen ez den Jutxe Dorreko sugarra, gida eta itzultzaileen sekretismoa, txoko oro inbaditzen duen propaganda ofiziala...

“Ipar Koreari buruz sekula egin den dokumentalik onena komiki bat da”, irakurri dugu liburaren kontrazalean. “Delislek ironia zorrotzarekin kontatu du hiriburuko egonaldia”. Egia da ironiarekin kontatzen dituela, baina sentsazioa dut ironia horrek ipar korearrak izan dituela beti jomugan, haiek iragarri utzi nahia gehiegi nabarmentzen dela. Egia da Ipar Koreako errealtatea iragarri eta absurdua izan daitekeela –Kim Jong Il buruzagia hil osteko irudiak ikustea besterik ez dago–, baina Delislek gainerakoak irudikatzen ditu beti barregarri, egoerari buelta eman eta bere burua sekula “zigortu” gabe, estralurtar moduan ingurukoak aurkeztuz. “Zein punturaino manipula daiteke pertsona baten garuna?”, galdetzen du komikiko Delislek, eskuan George Orwellen 1984 liburu duela. “Sinetsiko ote dituzte irentsarazi nahi dizkieten pitokeria guztiak?”. Auskalo. Sinesten al ditugu guk? Alegia, ez dela Pyongyang kaleetan herritarrak zelatatze bideo-kamerak dituen munduko hiri bakarra.





txotxongiloak, ipuin kontalariak, magia, antzerkia...
Bilboko Haur Kultur Zirkuitua | 3-12 urte



2012ko OTSAILA

- 02/01 **TONI LA SAL**
18:00etan Bilboko Karmen aretoan
- 02/02 **LUR KORTA**
18:00etan Tibilin, Epalza Alargunaren Ikastetxean
- 02/04 **ANE MONNA, OSKOLA ETA KARRAMARROI**
11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
- 02/07 **SUN MAGAO**
18:00etan Begoñako udalategian
- 02/08 **TTR TEATRO**
18:00etan Bilboko Karmen aretoan
- 02/09 **PATATA TROPICALA**
18:00etan Tibilin, Epalza Alargunaren Ikastetxean
- 02/11 **MADIBER MAGAO**
11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
- 02/14 **MAITE ARRESE**
18:00etan Begoñako udalategian
- 02/15 **JAKIN ETA JOLAS**
18:00etan Bilboko Karmen aretoan
- 02/18 **TXATXILIPURDI**
11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
- 02/21 **TXOTXONGILO TALDEA**
18:00etan Begoñako udalategian
- 02/22 **PERMIN**
18:00etan Zamakolan, Juan Delmas ikastetxean
- 02/23 **ZIRIKA ZIRKUS**
18:00etan BilboRock aretoan
- 02/25 **MONDA ETA LIRONDA**
11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
- 02/28 **BEGIRA**
18:00etan Begoñako udalategian
- 02/29 **RUM RUM ROCK**
18:00etan Zurbaran herri ikastetxean











ANA ZAMBRANO

SAIL, ATAL HUTS, AKATS	PERTSONAIA- REN DEITURA GUZTIZ, SANO	ZUREZKO ONTZI LUZE	 ZALDI ERO	GAIXOTASUN BATEN GUNE PERTSONAIA- REN IZENA	ONEZ ..., ASMO ONEZ PARTETIK	USADIOAN SUSMO, BELDUR	
URDURI, HASERRE EZKON- FESTA				KLARIONA LABORE MOTA			
				UKAMEN OPATUZ	GERRARI EKARRARAZI		
IODOA ASIAKO LANDARE	ZEMENTUZKO PIEZA HANDIA ARRETA, KASU					NIREA OTOITZ EGITEN	
		EMAITZAK EZ LORTZEA NAHI BIZIA, GUTIZIA					ZINKA LEHOR- HAIZE
KALEAK	ARTO, HITZ- ELKARTEETAN AITZAKIA, ESTAKURU		AITONA DUDARIK GABE, BENETAN			IRRIBERA, JOSTARIA	
				HARAGIA JANTZI IRAZGAITZA			
SUFRIARAZI ZUHATZ MOTA					JOKAMOLDE NAHASTURA TRINKO		
			GAIXOBERA, GAIXOTI ZU			ANPEREA HERRI HIZKERAN, ZER	
NONGO ATZIZKIA AKTORE- TALDEA	IHARTZERA BEHARTU POTENTZIA						
					HITZA, BERBA		

A photograph of a white statue of the Virgin Mary, known as the 'Virgen de la Candelaria', standing in a niche. The statue is wearing a white robe and a blue sash with a cross. Below the statue is a plaque with the text 'QUE SOY ERA' and 'FAMILIAR CONCENTRO'. The statue is set against a dark background, possibly a cave or a large tree trunk, with green foliage visible on the right side.


	S	E				F	O	U					
M	E	N	T	S		J	O	A	N	E	S		
K	E	X	U				K	L	E	R	A		
E	Z	T	E	I	U		G	U	D	A	R	I	
I	B	L	O	K	E	R	A	E	N	E	Z	N	
S	O	J	A	P	O	R	O	T	Z				
		A	R	T	A	A	I	T	I	E			
K	A	R	R	I	K	A	K		O	K	E	L	A
P	A	I	R	A	R	A	Z	I		R	O	L	
Z	U	M	R	E	R	I	K	O	R	A			
K	O	I	H	A	R	R	A	R	A	Z	I		
K	O	N	P	A	I	N	I	A		F	I	E	A



argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Memoria hamabi atomotan

KALIFORNIAKO IBM laborategiko eta Alemaniako CFELeko ikerlariak inoiz lortutako memoria-unitate fisikorik txikiena fabrikatzea lortu dute. Gailu berriak bit bat gorde dezake burdinazko hamabi atomo besterik ez erabilita. Ondorioz, byte bat, hau da, zortzi bitez osatutako memoria unitatea, 96 atomotan gorde daiteke.

Zientzian eta teknologian miniaturizazioarentz egiten ari den lasterketan oso garrantzitsua da lorpen hori, ez baitugu ahaztu behar gaur egun ohiko memorien artean unitaterik txikienean milioika atomo behar dituztela byte bat gordetzeko.

Lortutakoak abiaduran eta informazioa gordetzeko ahalme-nean izango du garrantzia. Datozen hamarkadetako ordenagailu eta tresna eramangarriak gaur egungo paradigmak irautea ziurtatuko dute. Hots, gero eta txikiagoak, gero eta pisu gutxiagokoak eta gero eta azkarragoak.



WWW.TRIOTE.COM



Karbono dioxido kopurua txikitzen duten zolak egiten ditu euskal enpresa batek



BASEPAISAJISMO.BLOGSPOT.COM

SOPUERTAKO (BIZKAIA) Hermanos Egus-kiza enpresak Ecosit Klimco izeneko zolak merkaturatzen ditu. Familia-enpresa horretako ordezkari Jose Mari Eguski-zaren esanetan, zola bera ez da ekologikoa, zolak duen eragina da ekologikotzat har daitekeena; hainbat zentro teknologikotan egindako ikerketen arabera, zolak 2,81 kilogramo karbono dioxido xurgatzen du metro koadroko.

Hori esatearekin batera, euskal administrazioetatik izan duten laguntza eskasa ere aipatu beharra dago, eta ez dira ikerketak aurrera eramateko diru-laguntzaz bakarrik ari, merkatu-eskaeraz baino. Eguskizak dioenez: “Hemen asko aldarrikatzen dugu oreka ekologikoa, baina gero zolak jartzeko garaian merkeena aukeratzen da, eta ez gara konturatzen gurea hasieran pixka bat garestia izanik ere, epe ertain, eta zer esanik ez luzera, dituen onurak izugarriak direla”.



Berez garbitzen den beira

Alemaniko Max Planck Institutuko ikerlariak ezaugarri bereziak dituen beira-geruza gardena ekoiztu dute. Beira horren propietate nagusia ura eta olio berari itsastea eragozteko gaitasuna da. Horren aplikazio praktikoak ugariak izan daitezke, etxegintzan eta medikuntzan batez ere.

<http://ttiki.com/34506> (Gaztelaniaz)

Karbono dioxidoaren eragina arrainetan

Ume askok ikusi dute Nemo arrainaren historia kontatzen duen filma. Kasu honetan, ikerlariak aztertu dute arrain mota horren portaera karbono dioxido kontzentrazio handia duten uretan, eta emaitzak kezagarriak izan dira oso.

<http://ttiki.com/34507> (Ingeleseaz)

Zizare batzuk bi aldiz gehiago bizi dira alkoholaren presentzian

Maiz entzuten ditugu alkoholaren aurkako mezuak, noizean behin ardo pixka bat ona dela esaten diguten arren. UCLA Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek behatu du zizare espezie baten bizitza luzatu egiten dela alkohol kontzentrazioa pixka bat handitzen den guneetan. Nola liteke?

<http://ttiki.com/34508> (Ingeleseaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



ACADEMIC.REED.EDU

Gauenarak

GAUENARA EDO SAGUZARRA. Saguzar zalea bazara kiropteroifilak bizi zaitu. Lasai, ez zara bakarra, hamaikatxo landareren tankera duzu, hori da hori luxua! Kubatik ekarri nizun hosto lauak beharrean parabolikoak dituen *Marcgravia evenia* bezala, saguzarrekin auzolanean bizi den landare asko dago.

Landareek eta saguzarrek elkarren beharrean eboluzionatu dute. Gehienetan saguzarrak egiten duen lana landare baten loreko polena beste landare baten loreraino garraiatzea da. Eta haren polena beste bateraino. Eta harena beste bateraino. Etengabe. Landareen nektar truk. Zientzialari batzuen ustetan saguzarren eta landareen arteko elkarlan hori, batez ere, bioaniztasuna eskasa den tokietan ematen da. Erdialdeko Amerika, Karibea eta Hego Amerika biltzen dituen neotropikoan saguzarren bat morrontzan hartua duen 500 landaretik gora ezagutzen da. Lehia latza! Denek nahi dute saguzarra bere. Bere loretan; bere esklabo. Landare jakin batek eta saguzar jakin batek uztarri berean eboluzionatzean, urteen eta belaunaldien poderioz, haren loreak bereziki saguzar horrentzat dira.

Hegalari ugaztun hau bereganatu asmoz loreak diseinatzerakoan antzeko taktikak darabiltzate landare guztiek: handiak eta aisa ikusteko modukoak, zuriak, laruak edo horiak, ilunabarrean edo gauean irekitzen direnak, usain edo kirats nabarmena dutenak eta nektar goxoz bustiak. Sudurrera bistako usaina, belarriko antenarako ultrasoinuen bidezko kokapena erraztuko duten hosto parabolikoak, begi-bistako ikusgarritasuna eta zuku ezti ahogozagarria funtsezkoak dira saguzarren arreta erakartzeko. Usainak edo kiratsak maiz sulfuroa duten osagaietan oinarritutakoak dira, arrautza ustelak edo udatsak edo ur-beltzak edo mailatutako sagarrekin egindako sagardoak izaten dutenaren tankeratsukoak. Hurrengo eta erabakigarria nektarra da. Nektar ugari sortzen dute loreak, polinizazio lana gozo eta lodi berdintzeko. Hartu eta eman. Elkarlana ordaintan.



VITORIA GASTEIZ
EUROPEAN
CITY CAPITAL

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

Gozatu euskaraz liburutegietan!

Gonbit-txartelak aste bete lehenago

ABETXUKU

> Efektu berezien makillajea: Lantegia
Otsailak 14, 18:00 (8-10 urte)

ARRIAGA

> Birziklatzea dibertigarria da: Lantegia
Martxoak 3, 11:00 (5-6 urte) eta 12:00 (7-9 urte)

HEGOALDE

> Aldrebeskeriak eta beste kontu batzuk:
Ipuin kontalaria
Otsailak 9, 17:30 (+4 urte)
> Groenkiak
Bidaia-hitzaldia eta argazki-erakusketa
Otsailak 16, 19:00 (gazte eta helduak)
> Orri markagailuak material birziklatuekin:
Lantegia
Martxoak 2, 17:30 (+5 urte)

IPARRALDE

> Eguzkia, lurra, ura eta haizea
Ipuin kontalaria
Otsailak 8, 18:00 (+6 urte)
> Energia berriztagarriak
Lantegia
Otsailak 18, 11:00 (5-9 urte)
> Kiwizibidaia
Hitzaldia
Otsailak 22, 19:00 (gazte eta helduak)

JUDIMENDI

> Birziklatzea asmatzea da
Lantegia
Otsailak 8, 18:00 (6-12 urte)
> Galaxietako liburutegi
Maiatzak 13, 17:30 (5-6 urte) eta 18:30 (7-9 urte)

Hitzaldiak

>> NOLA LAGUNDU SEME-ALABEI
EUSKARA ERABIL DEZATEN?
Ibaiondoko GE. Otsailak 9, 18:00
Hizlaria: Iñaki Eizmendi

>> SEME-ALABEK EUSKARA
ABERATSA IZATEKO AHOLKUAK
Ibaiondoko GE. Otsailak 14, 18:00
Hizlariak: Iñaki Eizmendi
eta Edu Zelaieta

Kontzertua

>> ZE ESATEK!
Otsailak 10, 21:00
Jimmy Jazz aretoa

Ikastaroa

>> EMAKUME BERRIA, ARTE BERRIA
Montehermoso kulturunea
Otsailaren 22tik maiatzaren 9ra
Asteazkenetan, 10:00-12:00
10 saio, 20 ordu
Formatzailea: Haizea Barcenilla



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Carrero Blanco eta bonba atomikoa



Ezkerrean, Henry Kissinger, AEBetako estatu idazkaria, eta eskuinean, Luis Carrero Blanco, Espainiako Gobernuako presidentea, 1973ko abenduaren 19an. Egun hartan bonba atomikoak izan zuen protagonismoa, baina biharamunean beste bonba batek kenduko zion.

MADRIL, 1973KO ABENDUAREN 19A. Espainiako Gobernuako presidentea Luis Carrero Blanco eta AEBetako estatu idazkari Henry Kissinger lehenengoaren bulegoan bildu ziren goiz hartan. 1968an Arma Nuklearrak Ez Ugartzeko Ituna sinatu zenetik, AEBek, Erresuma Batuak, Frantziak, Txinak eta SESBk soilik zuten arma horiek garatzeko eskubidea, eta Kissingerrek ez zuen beste inor nahi klub hartan. Espainiar Gobernuarekin aurrez zeukaten akordioa luzatzeko joan zen Madrilera; 1955eko akordioak programa zibila —energia nuklearra— garatzeko aukera ematen zien espainiarrei, baina ezin zuten arma nuklearrik fabrikatu edo gorde.

Carrerok, aldiz, itun berria nahi zuen. Eta presioa egiteko txosten bat eman zion Kissingerri; txostenaren arabera, Espainia plutoniozko bonba atomikoa egiteko gai zen atzerriko laguntzarik gabe. Erregimen frankistak izen bitxia jarri zion arma nuklearraren programari: *Islero*, 1948an Manolete zezenketari ezaguna hil zuen zezenaren izena. AEBek Espainiari elkar defendatzeko itunik eskaintzen ez bazion, nazioarteko baimenik gabe askatuko zuten zezena.

Baina Kissingerrek betaurrekoetako kristala bezain lodia zuen azala, eta ederki toreatu zuen espainiar

Mihura. Txostenak ez zuen harritu, halako mehatxuak jasotzen ohitua baitzegoen. Eta ez zuen ezertan amore eman. Ez zuen presarik. Bazezkieen Nixon administrazioak ez zuela besterik onartuko Espainian diktadura indarrean zen artean. Eta bazekien Islero programa martxan jartzeko espainiarrek gutxienez sei urte behariko zituztela, eta erregimen frankista azkenetan zegoela. Handik bi urtera, 1975eko abenduan, Franco hil berri-tan, elkar defendatzeko akordioa sinatuko zuten AEBek eta Espainiak. Islero erabat baztertuta zegoen ordu-rako.

Baina Carrerok ez zekien hura bere azken ekitaldi ofiziala izango zela, espainiar bonba atomikoaren proiektuaren defendatzaile sutsue-nak, bidean, beste bonba batekin topo egiteko zuela.

Biharamunean, Kissingerrekin bildu eta 24 ordura, Carrero Blanco mezetatik irten zen eta betiko bidea egin zuen. Claudio Coello kalean ETak prestatutako bonbak eztanda egin eta Carreroren autoa bete-betean harrapatu zuen. Goma2-z egindako bonbak presidentearen plutoniozko ametsak suntsitu zituen. *Ogro*-ak zezena harrapatu zuen.



Arrastoak

Gurutzadei buruzko arabierazko lehen inskripzioa

TEL AVIVEN Gurutzadei buruzko idazkun berezia topatu berri dute; berezia, arabieraz idatzita dagoelako, eta kristau gurutzatuek musulman garaituen hizkuntza erabiltzeko ohiturarik ez zutelako.

Baina Federiko II.a enperadorea (1194-1250) bestelakoa zen. Seigarren Gurutzadako buruzagiak odol tantarik isuri gabe konkistatu zuen Lurralde Saindua, arabiera ederki menderatzen zuen, eta gortean ere musulman asko sartu zituen. Aurkitutako idazkunak, hain zuzen, haren izena aipatzen du.

Orain arte, Gurutzadei buruzko Mendebaldeko historiografia —eta, ondorioz, literatura eta zinema— kristau gurutzatuen ikuspegira mugatu da nagusiki. Aurkikuntza honek zintzoen eta gaiztoen kontuak baztertze eta gerra horiek ikuspegi anitzago eta objektiboagotik aztertze balioko al du?



ISRAELGO GOBERNUA

Gurutzadei buruzko arabierazko idazkuna Tel Aviveko etxebizitza pribatu batean aurkitu dute.

Argia Sariak 2012

Festa gozoa garai garratzetan

Ederki jateko, sektore ugaritako jendearekin elkartzeko eta giro epelean honetaz eta hartaz solastatzeko aukera aproposa dira Argia Sariak. Aurten, bereziki jendetsua izan da euskal komunikabideen lana saritzea helburu duen ekitaldia. Umorez, esker onez eta aldarrikapenez jantzitako mezuak utzi zizkigun egunak.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazkiak: Dani Blanco

BIGARREN URTEZ, Usurbilgo Atxega Jauregian antolatatu zen ospakizuna. Bazkal-aurreko *lunchak* egin ziren harrera iristen ziren gonbidatuei; aurkezpenak eta lehenengo hitzak mokadu artean egin zituzten. Behin mahaietan eserita, *Beranduegi* saioko bikote umoretsuak ohiko ironiaz abiatu zuen ekitaldia, bazkaldu bitartean jarraitu beharreko aholku sorta luzatuz. Bapo jateko aukera izan genuen ondoren, baita tertulian lasai aritzeko ere: mintzagaien artean, ez ziren falta izan krisi ekonomikoa, hedabideen egoera kritikoa edota panorama politiko berria –gonbidatu zerrendan islatua–.

Urtero legez, sarituen izenak asmatzen eta norbere kiniela egiten saiatu zen bat baino gehiago mahaietan, baina postrera arte iraun zuen sekretuak. Kafearekin batera ekin zitzaion sari banaketari, Olatz Korta ARGIAko kideak gidatuta. Lehenik, Xabier Letona zuzendaria euskarazko hedabide ez publikoen aldarrikapenak argudiatu zituen bere hitzaldian –irakurri 41. orrialdean–; segidan, Antton Mendizabal eskultoreak zizelkatutako opariak jaso zituzten sarituek, banan-banan. EiTB Nahieran proiektuko kide Iñako Gurrutxagak adierazi zuenez, eduki asko jarri dituzte jendearen eskura, baina



Aurtengo sarituak: Jakes Casaubon eta Luzien Etchezaharreta (*Gure Bazterrak*); Pantiika Maitia eta Ximun Carrere (Kanaldude); Joseba eta Maddi Alvarez (Txillardegiren izenean); Iñako Gurrutxaga (EiTB Nahieran); Roman Azkue, Aitor Unanue eta Beñat Asurmendi (Klikmetroak); Karlos Zurutuza (prentsa idatzia arloan saritua).

oraindik bi erronka dituzte: “Eduki horiek deskargatu ahal izateko lizentzia garatzea, eta bere osotasunean dastatzeko eta baliatzeko dokumentatzea eta fragmentatzea”.

Karlos Zurutuzak hunkituta jaso zuen prentsa idatziko garaikurra. “Azken urteotan asko ikasi dut, etengabe eta zentzu guztietan; munduko ogibiderik aberasgarriena iruditzen zait erreportariarena”, aitortu zuen.

Gure Bazterrak irratsaioko Luzien Etchezaharreta eta Jakes Casaubon mintzatu ziren jarraian. Etchezaharretak euskal irrati libreen indarra nabarmendu zuen. Casaubonek emankizunaren bereizgarriak azpimarratu zituen: “Ondarea, herriarren arteko harremanak (oraingoak eta lehengoak) eta gure herriaren historia”.

Kanaldudeko kide Ximun Carrerek ere hiru oinarri aipatu zituen beraien lanean: telebista parte-hartzailea bultzatzea, euskaraz izatea eta jendearekin lotura mantentzeko tokiko telebista garatzea.

Aitor Unanue Azpeitiko Ikasberri ikastolako lehen-dakariak elkarlana izan zuen hizpide: “Mugarik gabeko elkarlan handi baten lorpena da Klikmetroak; 35 urte atzera jo, Beasaingo ikastolaren ideia hartu eta egungo komunikazio tresnetara egokitzea elkarlana izan da”.

Azkenik, Joseba Alvarezk hartu zuen hitza, aitari, Txillardegiri, emandako Merezi-menduzko saria eskertzeko: “Gure aitak, beste batzuekin batera, Euskal Herriak gerra ondoan bizi zuen giro ilun eta etsian argi txiki bat pizteko gaitasuna izan zuen eta poliki-poliki argi horrek Euskal Herriko berpizkundera ekarri zuen kulturgingintzan, euskalgintzan, politikan, euskal abertzaletasun berriaren forman. Argi txiki hori aitak handitzen ikusi zuen eta egun, gure lurra elikatzen eta aberasten duen eguzki bilakatu da, guztion lanari esker”.

Aitor Furundarenaren esku-soinuak eta animatu zirenen ahotzek euskal komunikazioaren festa luzatu zuten arratsaldean, dantza lagun.





(1): Iñaki eta Nora Esnaola, aita-alabak, Sustrai Colinarekin; (2): Joseba eta Maddi Alvarez, Txillardegiren seme-alabak; (3): Iñaki Soto (*Gara*), Gorka Altuna (Baigorri), Iñaki Uria (Hamaika TB), Iñako Gurrutxaga (EiTB), Xabier Letona (ARGIA) eta Jabi Onaindia (Bizkaia Irratia); (4): Juan Karlos Izaguirre Donostiako alkatea, Zigor Etxaburu eta Ikerne Badiola Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin hitzaldia entzuten; (5): Beñat Sarasola, Angel Erro, Beñat Irasuegi eta Mikel Iturria twitterzaleak; (6): Karlos Olasolo (ARGIA), Imanol Miner eta Mikel Mendarte Kutxako kideekin; (7): Jakes Casaubon, Xabier Otaegi eta Antton Mendizabalekin berriketan.

Xabier Letona, ARGIAko zuzendaria

Hauskorrak eta beharrezkoak

BEHIN EMAN ZIOTEN sari bat ARGIAri eta zer bait esateko eskaini ziguten denboran, saria eskertzeaz gain, esan nuen botere publikoek ez dituztela ondo zaintzen euskarazko hedabide ez publikoak.

Eta esan nuen, besteak beste, euskarazko hedabideok merezi genuela etxeko elektratasnek, altzariek edo autoen gurpilek adinako begirune. Krisia zela eta horiek eta beste sektore batzuk ere laguntza jasotzen ari zirela diru askorekin, baina gu ez. Gure kasuan laguntzek behera egiten zutela.

Kontua da, hitzaldiaren ondoren, jadanik tertulian ari ginela, agintari bat hurbildu zitzaidala haserre, nire hitzaldia ez zitzaiola batere gustatu esanez; ahalegin handia egiten ari zirela eta nire balorazioak ez zitzaizkiola batere justuak iruditzen. Gaineratu zuen, halako ekitaldiak ez direla halakoak esateko lekua, hura festa giroan egiten zela, ondo pasatzera gindoazela hara, eta lekuz kanpo zegoela esandakoa.

Nik erantzun nion ez nengoela ados esaten ari zenarekin, esandakoa kritikoa zela, baina beti errespetuz esandakoa; eta baietz, halako ekitaldiak ere badirela hausnarketa eta kritikarako lekuak.

Orain badakit ondo egin nuela, murrizketen bidea nagusitzen ari dela han-hemenka eta jarraitu beharko dugula aldarrikatzen gehiago behar dugula. Eta jarraitzen dugu pentsatzen zergatik ote garen hain hutsalak errepide edo trenbideen alboan; edo ditugun kultur ekipamendu eder eta garesti horien alboan.

2011n sektorekook hainbat bileran egin ditugu agintariekin eta alderdietako arduradunekin, baina oro har uste dut ez direla egoeraz jabetzen, ez direla ohartzen zein ahalegin erraldoia eskatzen duen euskarazko hedabide ez publikoak aurrera ateratzeko; halako hainbat desagerpenak zer suposa dezakeen.



DANI BLANCO

Besteak beste, diru-laguntzetan %25 gehiago eskatzen genuen aurtengorako. “A zer larru sendoa, garai hauetan zer eta laurden bat gehiago eskatzen!”, pentsatuko zuten akaso. Baina %25 gehiago hori ez da iristen bi milioi eurotara instituzio guztien artean... 600 lagunetik gora langile dituen sektorean. Tabakalera eraikitzeak, adibidez, 56 milioi euro balioko du. Eta mantenuak urtero?

Azken 20 urteetan pauso handiak eman ditugu euskarazko hedabideetan, bai eskaintzan eta baita ere kontsumitzaile kopuruan ere. Baina oso hauskorrak gara, munduan hain preziatu eta beharrezko diren ekosistema asko moduan: asko kostatzen zaie eratzen, eta dinda batean desager daitezke. Beraz, nor txikituko ote du krisialdiak

**Oro har uste dut
agintariak ez direla
ohartzen zein ahalegin
erraldoia eskatzen duen
euskarazko hedabide ez
publikoak aurrera
ateratzeak**

hurrengo haginkadan? Komunikazio mundukook esaten dugu bi krisi ditugula: negozio eredu aldatetarena eta oraingo krisialdi ekonomikoa. Baina, ez, hirugarrena ere badago: horien aurretik gure ohiko krisia dago, euskarazko hedabide ez publikoak beti bizi izan gara krisian.

Eta hala ere, uste dut baditugula pozik egoteko arrazoiak. Krisiak sektorea bildu du, urtebetez elkar lanean aritu gara. Bai, badakit balorazio asko egin daitezkeela, baina gure artean orain arteko gehienak positiboak izan dira. Hemendik aurrera agian zailagoa izango da, gehiago zehazten hasi behar dugulako, gerrikoa estu dugulako eta seguruenik gehiago estutuko zaigulako. Edozer egiten dugula ere, ARGIAtik uste dugu jarraitu behar dela elkarlanari espazioak zabalik uzten. Ea gai garen.

Instituzioei dei bat, borondate gehien dutenei behintzat, EAEkoei: izan zaitezte zentzuzkoak eta bildu dadila HAKOBA hedabideekin eta erabaki daitezela gauzak zentzuz eta ez instituzio bakoitzak bere aldetik. Koordinaziorako erakundea da hori, ba bildu dadila eta jar ditzala diru-laguntzen politikak norabide egoki eta eraikitzaile batean.

Eta bakeaz ere hitz egin nahi nuen, egoera berriaz, gaur hemen ere islatua dagoena. Ez naiz luzatuko, bakarrik esango dut horrela askoz hobeto bizi garela denok, eta horrek izugarritzko balioa duela. Gehien sufritzen dutenek dakite ondoen hori. Baina hau ez da bukatu: ETArekin amaiera ordenatua behar da, arazo teknikoak eta arazo politikoak bideratzeko, eta hori bake prozesu zintzo eta eraginkor batekin egiten da egokien. Gizarte moduan, herri moduan, sekulako aukera dugu begien aurrean, ea gai garen txukun baliatzeko. ■

ARGIA Sariak banatu aurretik emandako hitzaldia da honakoa.

Merituak ugari

Gure Irratiko Gure Bazterrak saioa, Karlos Zurutuza kazetaria, EiTb Nahieran, Azpeitiko Ikasberri Ikastolak egindako Klikmetroak ekimena eta Kanaldude telebista izan dira sarituak aurtengoan. Horietaz gainera, Merezimenduzko Saria eman nahi izan zaio, honen heriotzaren aurretik erabaki moduan, Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegí'-ri.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

● IRRATIA Gure Bazterrak saioa, Gure Irratia

1997ko udazkenean abiatu zuten *Gure Bazterrak* izeneko proiektua Gure Irratiko kideek, hasiera haieran 30 minutuko emanaldiak eginenez. “Alde batetik naturari eta ingurumenari buruz aritzea zen helburua, eta, bestetik, ondarearen berri ematea, herriz herri ibiliz”, dio Luzien Etxezaharreta Gure Irratiko kideak. Euskal Herriko hainbat lekutan aritu da horretan, Jakes Casaubonekin batera, bereziki Iparraldean, baina baita Hegoaldeko bazter batzuetan ere.

Hasieran ordu erdiko emankizuna bazen ere, hamalau urteren buruan ordubeteko saioa izatera pasa da. Tokian tokiko jendea da hizlari moduan aritzen dena, eta herritarrek dute beren munduan gertatzen dena kontatzeko ardura. Kontakizun horiei, halere, zenbait dokumentu gehitzen zaizkie. Horrela, herritarrek haien herriarekiko sentitzen duten maitasuna azaltzeaz gainera, entzuleei bidaiatzeko aukera eskaintzen diete.

● PRENTSA IDATZIA Karlos Zurutuza

“Herrialde gatazkatsuetara joaten naiz normalean eta, ahal den neurrian, ikuspegi humanoa bilatzen saiatzean naiz” dio Karlos Zurutuza Prentsa Idatziko sarituak. Kurdistanen, Balutxistenen, Kaukasoko herrialdeetan, Balkanetan, Afganistanen eta Libian ibilitako kazetaria da

GAIZKA IROZ



Zurutuza. Herrialde horietara helduta, politika edo makro-ekonomia bezalako gaiez idatzi baino, nahiago izaten du herritarrek bizi duten egoera azaldu. “Gu bezalako jende xumeari gerra egoera horrek nola eragin dion azaldu nahi izaten dut, askotan edo gehienetan ahaztuak izaten baitira. Azken finean, bertan bizi duten errealitatea gugana gerturatzeke egiten dut ahalegina, jakinda hainbat hedabidetan biktima horien egoera ez azpimarratzeaz gain, demonizatu egiten direla”. Iraken inguruan hitz egiterakoan, adibidez, automatikoki burura “rolo txarra” etortzen zaigula dio. Zurutuzaren ustez bereizi egin behar dira gauzak, batetik gobernu eta gerra egoera ditugu, eta bestetik, bertako jendea eta horiek pairatzen ari diren egoera.

Aurten Irakera itzuli nahi du, batik bat 2011n hedabideetatik desagertu delako. Horrez gain Afganistanera eta Sirirara ere joateko gogoia baduela nabarmendu du.



Luzien Etxezaharreta eta Karlos Zurutuza.

DANI BLANCO

● INTERNET EiTb Nahieran

EiTb Nahieran sortzeko beharra argi ikusi zuen zuzendaritzak. Dagoeneko beste telebista kate batzuk –publikoak zein pribatuak– eskaintzen zuten Interneteko zerbitzu hau, eta gaur egungo egoeran, geroz eta beharrezkoagoa dela pentsatzen zuten. “Erabiltzaileak, azken finean, ez du telebista telebistan soilik ikusi nahi, baita beste aparatu batzuetan ere, eta, gainera, nahi duen momentuan”, azaldu digu EiTb Nahieraneko Eudene Ormazabalak. Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko moduak aldatzen ari direla jabetuta, EiTb daukan ondare hori beste euskarri batzuetan ere eskuragai jarri nahi izan du, eta kontsumitzeko era berri honi heldu. “Oraindik telebista tradizionaleko zifrak askoz ere handiagoak dira, baina pixkanaka erabil-



DANI BLANCO

Ezkerretik eskuinera, Klikmetroak, EiTB Nahieran-en aurkezpena, Kanaldudeko emanaldi bat eta Txillardegia.

tzaile kopurua gorantz doa”. Etorkizunera begira aukera zabaltea dute helburu. Alegia, irratia- rekin beste horrenbeste egitea; “momentu honetan ez daude eskuragai irriti guztietako programazio osoak. Hori da epe laburrean dugun lehenengo erronka”. Telebistari dagokionez, berriz, eduki gehiago lortzea da xede nagusia.

● PUBLIZITATEA Klikmetroak ekimena Azpeitiko Ikastola, Ikasberri Kooperatiba

Kilometroak festaren berri emateko eta laguntza ekonomikoa jasotzeko ekimen berritzailea jarri zuen martxan Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatibak iaz. Ibilbidean egingo ziren metroak erosteko aukera ematen zuten webgunearen bitartez. Herritarrak ziren protagonistak eta nork bere ize- nean erosten zuen kilometroa, baina dirurik jarri gabe. Berez, Kilometroak-eko babesleak ziren haien partez ordaintzen zutenak.

“Ekimena teknologia berriekin uztartu nahi izan genuen. Pentsatu genuen ikastola gai zela uztartu horri aurre egiteko, eta laguntza edo babesla ere bagenuela horretarako”, nabarmendu du Azpeitiko Ikastolako zuzendari Beñat Azurmendik. Ekimenak harrera bikaina izan zuen eta ibilbide osoa ez ezik, bigarren itzuliko zenbait metro saltzea ere lortu zuen Azpeitiko Ikastolak.

● TELEBISTA Kanaldude

1997an ekin zioten lanari hilero ateratzen zen Elebista bideo-kazeta sortuta. Geroztik, herri telebista Ipar Euskal Herriko gune guztietara helarazten saiatu dira. Duela urte gutxi Interneteko lanari ekin zioten www.kanaldude.tv webgunea sortuta. Horrez gain, TVPI telebistakatean kaleratzen dituzte zenbait eduki. Hamabost kolaboratzaile inguruk eta zortzi langilek osatzen dute lantaldea. Gaur egun, astero 20 minutuko produkzioa egiteko gai dira. Telebistaren helburuetako bat –Iparraldean gertatzen dena bertatik kontatzeaz gain jakina– ikuslea kontsumitzaile hutsa izatetik material sortzaile izatera pasatzea da.

“Etorkizunera begira –azaldu digu Ximun Karrere taldekideak–, irautea dugu helburu nagusia, dirulaguntzak ez baititugu ziurtatuta. Eta partaideak eta publizitatea oso garrantzitsuak dira horretarako”.

● MEREZIMENDUZKO SARIA Jose Luis Alvarez Enparantza ‘Txillardegia’

Donostiako Antigua auzoan 1929an jaioa, pertsona esanguratsua izan da XX. mendeko Euskal Herriaren historiako hainbat alorretan; besteak beste, hizkuntzalaritzan, literaturan eta politikan. Euskara etxean jaso ez zuen arren, betidanik izan zuen Euskal Herriarekiko eta euskararekiko grina. Gaztetatik mugimendu abertzalean aritu zen lanean, eta garrantzi handia izan zuen Ekin, ETA, Herri Batasuna eta Aralar alderdien sorreretan. Euskara batua- ren bultzatzaile garrantzitsuenetako izan zen, eta euskararen alde egindako lanaren barruan, Euskal Herrian Euskaraz erakundeko sortzaileetako bat izatea dugu aipagarri. Berak idatzia da 1957an, euskal nobelagintza moderno- aren sorreratzat har daitekeen eleberria: *Leturiaren egunkari ezketua*. ■



C'est un travail important.

Lan garrantzitsua bat da.

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala
FRANTSESA | EUSKARA | GAZTELANIA | INGELESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.com

Aeronautika

Hegan clusterra berriro hegaldatu da

Euskal sektore aeronautikoa Hegan Aeronautika eta Espazio Clusterreko kide diren 37 elkartek osatzen dute, eta nagusiki EAEn biltzen da. Sektorea berriro hegaldatu da eta geldialdia atzean utzi du, 2011n fakturazioa %12 hazi baitzen. Erritmo horri 2015. urtera arte eutsiko diotela aurreikusi dute.

DANIEL UDALAITZ



HEGAN

Aernnova taldeko instalazioak Gasteizen; Hegan clusterreko fundatzaileetako bat da.

EUSKAL SEKTORE AERONAUTIKOA, nagusiki EAEn biltzen dena, berriro hegaldatzen eta geldialdia gainditzeko ari da, eta etorkizun ona aurreikusten da 2015era bitartean. Horixe da sektoreko arduradun nagusiek adierazi dutena. Haien arabera,

2010ean geldialdia atzean utzi dute, oraindik krisiak eragindako eragozpenak sumatu arren. 2010ean susperraldiaren lehen sintomak agertu ziren, eta 2011 urtean suspertze hori bizkortu egin zen. “Dinamismo fase nagusia” 2015. urtea bitartean lor-

tzea aurreikusten dute. Uste hori azken ekitaldiko fakturazioak eta esportazioen sendotzeak bermatzen dute. EAEko sektore aeronautikoa Hegan Aeronautika eta Espazio Clusterreko kide diren 37 elkartek osatzen dute. Cluster horretako

Euskal enpresak AIRTEC 2011 azokan

Heganeke, euskal clusterraren bederatzi kideekin batera, sektore aeroespazialeko hornitzaileentzako Airtec 2011 Nazioarteko Azokan parte hartu zuen, 2011ko azaroaren 2tik 4ra, aeronautika eta espazio hornidura katean duen tokia, nagusiki Europa ekialdeko merkatuetan, sendotzeko. Frankfurtoko (Alemania) nazioarteko azoka honek euskal enpresek espazio eta aeronautika proiektu berriak, ekoizpen baliabide berritzaileak, saio eskaintza espezializatua eta sektoreko erronka teknologikoei erantzuteko ahalmena erakusteko balio izan du. Heganekekin batera, euskal enpresa huek parte hartu zuten nazioarteko azokan: Aerometalic (Aernnova taldea), Aciturri, Alfa, CTA, Ingemat, Tecnalia, WEC, Sener, Novalti,

Reductia (Aratz eta Burdinberri enpresa arabarrak haren parte dira) eta Innovalia.

2011ko edizioa lau esparrutan egituratu dute: helikopteroak, espaziorako merkataritza aplikazioak, compositeak eta UAS (Gidaririk gabeko Aire Ibilgailuak). Euskal clusterraren arabera, sektore horretan eskaera bikoiztu egin daiteke datozen hamar urteetan. Airtecen seigarren deialdiaren berrikuntzetako bat Comac korporazio txinatarraren parte-hartzea izan zen, Airbus eta Boeing enpresekin batera. Txinako taldeak munduko hirugarren hegazkin fabrikatzailea izatea du xede, aipatutako bi talde erraldoien atzetik. Adierazgarria da azoka hau Alemanian egin izana, 2009tik herrialde hori izan baita Heganeke kideen salmenten helmuga nagusia.

bederatzi enpresak, iragan azaroan, Alemanian, Airtec 2011 nazioarteko azokan parte hartu zuten.

Fakturazioa %12 hazi zen

Euskal cluster aeronautikoko 37 elkarteek 1.500 milioi euro inguru fakturatu zituzten 2011n, aurreko urtean baino %12 gehiago. Hala, 2008an salmentetan lortutako marka gainditu zen (1.229 milioi euro). Heganeke arduradunen hitzetan “esan genezake, unean uneko etenaldien ondoren, hazkundearen biderei heldu diogula berriro, 2012an hazkundea izango dela aurreikusi dugu, eta hazkunde hori %6 ingurukoa izan daiteke 2012-2015 aldian”.

Fakturazioak enpleguan ere eragin du, arazoak arazo, kide kopuruak %10 egin baitu gora. Datozen urteetan kopuruak hazten jarraituko duela aurreikusi dute, salmenten maila berean hazi ez arren. EAEko planten jarduerari dagokionez, 2010ean fakturazioa %4 hazi zen eta 633 milioi eurora iritsi zen. Planta horietan 2010ean 3.738 langile aritu ziren, aurreko urtean baino hamalau gutxiago.

Alemania, merkatu nagusia


Sektore hau nabarmenki esportatzailea da. Hala, clusterreko enpresek 782 milioi euro esportatu zituzten 2010ean, salmenta guztien %62

baino gehiago. Horrek esan nahi du esportazioak %5 hazi zirela aurreko urtearekin alderatuta. Zehazki merkatu nagusia Alemania da, esportazioen %29 bertara doaz, 225 milioi euro hain zuzen, aurreko urtean baino %15 gehiago. Bigarren eta hirugarren merkatuak Brasil eta Erresuma Batua dira, baina horietan hazkundea apalagoa da.

Jarduera esparruei erreparatuta, sektoreko salmenten %49,8 aeroegiturei dagokie, eta %40,6 motorrei. Sistema eta ekipa esparrua fakturazioaren %7ra iritsi zen, aurreko urtean baino %14 gehiago. Bestalde, espazio esparruak salmenten %2,7 ekarri zuen.


Clusterreko enpresen bilakaera

Fakturazioa (milioi eurotan)



* Behin-behineko datuak

Langileak



** Daturik ez

Fusioak?

Sektorean fusiorik izan al liteke? Heganeke arduradunek ez dute erantzun zehatzik eman, baina mundu globalizatuan tamainaren beharra dute hizpide. Sektoreko azterketa batek Espainiako Estatu-ko hainbat enpresa aeronautiko fusioatzea gomendatu du, horien artean Aernnova. Heganeke arduradunen esanetan tamaina “garrantzitsua” da, I+Gn egiten diren inbertsioak oso handiak direlako eta berreskuratzeko epeak “oso luzeak”. Merkatua globala dela aintzat hartuta, balizko fusioak ez dira baztertu behar. Oraingoz, hala ere, gai honen inguruan ez dirudi erabaki zehatzik hartu denik. ■



Cervantes: Gaztelania barreiatzeko multinazionala

NORK ESAN DU krisia dela-eta euskara sustatzeko dirurik ez dagoela? *El País* egunkariak joan den asteburuan elkarriketa egin zion Cervantes Institutuko zuzendari berriari, Víctor García de la Concha. Galdera-erantzunak hasi aurretik, kazetariak, gaztelania munduan zehar bultzatzea helburu duen Cervantes Institutuaren datuak ematen ditu: 1.160 langile, bost kontinenteetako 77 herrialdetan banatuta. 2011ko aurrekontua 103 milioi eurokoa. Kazetariak berak deitu dio Cervantesi "multinazional". García de la Concha duela bi urtera arte Real Aca-

demia Españolako zuzendaria izan zen. 6,5 milioi euroko aurrekontua zuen eta ia 100 langile. Cervanteseko zuzendari berriak, besteak beste, adierazi du itsasontzi hispaniarrak gora datozen herrialdeetara iritsi behar duela, hala nola, Txinara, Koreara, Japoniara, Indiara, eta nola ez, Amerikako Estatu Batuetara eta Brasilerara.

Eta nork esan du hizkuntzarekin politikarik ez dela egin behar?

'GoiBerri' astekaria otsailaren 3an kaleratuko da

OTAMOTZ ETA GOIERRITARRA aldizkariaren baturatik sortu da *GoiBerri*. Gipuzkoako Goierri eskual-

dean, 22 herritan, banatuko da aldizkaria. Ordizian, Beasainen eta inguruko herrietan *Goierritarra* hamabostekaria kaleratu da gaur arte; eta Zumarraga-Urretxun *Otamotz* hilabetekaria. Bi hedabideek bat egitea erabaki dute eta *Goierriko Hitzarekin* elkarlanean, *GoiBerri* astekaria egin dute. Otamotz.com webguneak orain arte bezala jarraituko du. Astekariko zuzendaria Loinaz Agirre izango da, orain arte *Goierritarra*ko zuzendari izan dena. Bi hedabideetako harpidedunek astekaria jasoko dute eta harpidedun berriak lortzeko kanpaina egingo dute. Goierriko 10.000 etxetara heldu nahi dute.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Erantzun sindikal eta politikoak

Euskal Herrian agertoki politiko berria zabaltzen ari den bitartean, eremu sindikalean hodei beltzak azaltzen ari dira. Hori geratu zen agerian joan den astean, ELAren idazkari nagusi Txiki Muñozek *Gara* egunkariari emandako elkarrizketaren ostean. Desagertuko ahal dira hodeitzar horiek ekaitz bortitzen batek ELA eta LABek osatutako gehiengo sindikal abertzalearen batasuna gila gora jarri baino lehen. Ekintzarako batasun hori, ezker abertzalearen arabera, ELAk eman du puskatutzat. ELAk, aldiz, ezker abertzaleari eta Bilduri leporatu die haustura. Ezker abertzalearen orbitatik eta LABetik ELAri deia luzatu diote, bere erantzukizuna onar dezan. Momentu historiko honen aurrean eta krisi sindikal larrian, ondo dago erantzukizuna eskatzea. Erantzukizun hori ez litzaioke ELAri bakarrik galdegin beharko ordea, LABi, ezker abertzaleari berari eta Bilduri ere eskatzen ahal zaio. Gauzak ez dira egoera honetara iritsi buruzagi sindikal baten esaldi batzuegatik bakarrik. Sindikatu bakoitzak ondo daki hori. Borroka sindikalean, ez gutxitan, interes pertsonal eta korporatibistak daude "hegemoniak" markatzerakoan, eta batzuetan herri-interes orokorren aurretik ipintzen dira. Hango eta hemengo gobernu kapitalisten kontra borrokatzeko sindikatuak ez dute elkartzeko oztopo handirik. Euskal Herriaren kasuan, orain badago Gobernu bat, Gipuzkoako Foru Aldundia bezalakoa, ezker abertzalearen eskutik. Eman ditu jada urratsak erreforma fiskalean eta ELA ez da neurri horien iritzi berekoa, uste duelako, eta ez arrazoirik gabe, liberalak eta kontinuitistak direla, ñabardura batzuk salbu. Gaur egun sakonki antikapitalista den sindikatu honi inork ezingo dio "horikeria" leporatu. Erreforma horretako erabakiak hartu aurretik, ezker abertzaleak eta Bilduk eztabaidatu al zuten sindikatu nagusia den ELAekin ere? Ez baldin bazuen egin, zergatik? Ardura, bai. Baina denon partetik.

Juan Mari Arregi



Klusterraren jardunaldiak

OTSAILAREN 24AN Soziolinguistika Klusterraren urteroko jardunaldia izango da, oraingoan *Kulturgintza euskararen garabidean* izenburupean. Jon Sarasuak ondoko izenburua duen hitzaldia eskainiko du: *Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboaren emaitzak, ondorioak eta proposamenak*. Kultur transmisioari buruzko hiru lan saio ere izango dira. Sorkuntzari buruzko tailerrean Igor Elortza eta Gotzon Barandiaran arituko dira; hedabideei buruzkoan Alberto Barandiaran; eta Hezkuntzari buruzkoan Jasone Aldekoa. Arratsaldean *Euskaltasuna hiritik. Donostia 2016 aitzakia hartuta* izeneko hitzaldia eskainiko du Eduardo Apodakak.

Hitzaldi zikloa Zumaian

EUSKARAREN INGURUAN hausnarketa egiteko asmoz hitzaldi zikloa antolatu dute Alondegian. Otsailko asteazkenetan izango dira 19:00etan eta hizlariak ondokoak: Jon Sarasua, Fermin Etxegoien eta Jose Manuel Odriozola. Mahai-inguruan arituko dira: Josu Waliño, Markel Peñalba eta Belen Uranga.

Eskozia: zer utzi zer hartu

MARGARETH-EK jangelako atea zabaldu zigunean hunkitu ere egin ginen euskaldun ikasle koادرila, Edinburgheko adineko emakume haren fineziaz: otordu ederraz gain, Eskoziako banderak eta ikurrina txiki banak apaintzen zuten mahaia. Haren etxean bizi zen arrasatearraren koadrilakoak ginen, hori dagoneko nahikoa zen, baina gainera euskaldunak. Horrek borobiltzen zuen egoera eta harremana.

1996ko udazken-negua zen eta *Braveheart* oraindik ere indarrez zebilen eskoziarren memoria astintzen, baina ingelesak ez ziren beste anglofono askorena ere bai. Gure etxeko Tom eta Scott australiarrak ere pozarren ziren filmarekin, lagun eskoziar ugari zituzten, eta Lothian Roadeko leiho hartatik ikusten genuen Edinburgheko Gazteluko bandera handi eta bakarti hura baino harroago ziruditen filmarekin. Ikasle festetan ere behin baino gehiagotan ateratzen ziren gure alde ikasle euskaldun eta espainiarren arteko eztabaidetan.

Baina oso molde desberdinean bizi genuen gure naziotasuna eta sarri harritu ere egiten ginen haiek jasaten zuten kultur kolonizazioaz. Ipar Irlandan aritzean ere antzerako



sentipenak azaleratzen ziren, eta agian gehiago, gatazkaren ondorioz Irlandako abertzaletasuna askoz ukigarriagoa ere bazelako. Gu gure hizkuntz egoeraz kexu ginen, eta aldiz, eskoziar gazte batzuk harro ziren haien ingeleseko dialekto itxura hartzen ari zelako.

Eskozia estatu gabeko herrien ipar bilakatzen ari zaigu 2014ko erreferenduma medio. Independentzia kimera eta kontzeptu zaharkitua baino, posiblea eta gaurkotasuneko dela erakusten digu. Herri bakoitzak bere ezaugarriekin heldu da XXI. mendera eta egoera ekonomiko aurreratua da eskoziarren abantailakoa, euskal herritarrena izan daitekeen moduan. Hori da egun eskoziarren argudiorik indartsuena oraindik independentismotik harago diren gehiengoak erakartzeko. Hemen ere

argudio sendoa bilakatzen ari da abertzaletasuna sendotzeko. Eta gainera, PPK sentipen hau gizendu besterik ez du egingo bakegintzaren eremuan neurriak hartzen zenbat eta gehiago atzeratu.

HERRI TXIKIEK krisiei aurre egiteko baliabide gehiago dauzkate eta gainera hobeto bizitzeko aukera ere bai, hori da gero eta txosten gehiagok dioena. Herri txikiak dira mundu mailako bizi maila handiena dutenak: Luxenburgo, Norvegia, Danimarka, Suitza... Horiengandik urruti gaude, baina akaso Espainiatik baino gertuago. Gainera, krisi ekonomikoak aukera bikaina ematen du egun bizi dugun gizarte eta garapen ereduaz ere jarduteko. Areago, egin behar ezinbestekoa da hori. Eskoziari begira, hemengo euskaltasunetik begirata bederen, argi dago begia non jarri behar den eta non ez. Etxera begira, bada oinarriez, estrategiez eta ereduaz jarduteko ordua. ETA-ren oztupo edota aitzakia –nondik begiratzen den– historia da jada eta ezin da elkarren artean modu eraikitzailean hitz egiteko aukerarik galdu.



Elatzeta Ikastetxea



**Guztion eskola publikoa • Gaurko eta biharkoari erantzuteko
Harremanak elikatuz • Euskaraz bizitzen**

Araba 44, Landetxa Auzoa 20.305 IRUN • ☎ 943 62 80 10 • elatzeta@euskalnet.net • www.elatzeta.com

Haizearen indarra berriztagarria da, neodimioa ez

Munduko gerra ageriko eta ezkutuko zerrenda luzean gehitu ezazu honakoa: lur arraroena. Eskandioa, prometioa, neodimioa, samarioa, galioa, telurioa... izen xebleko mineralak baina egunero darabiltzagun tresnen bihotzak mugiarazten dituztenak. Arraro deitzen zaie urri daudelako baino, eskuratzen zail eta garestiak direlako.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEK BADUTE mugarik? Berriztagarri den zerbaitek esan liteke amairik gabea behar duela. Baina berez berriztatzen den energia bildu, pilatu eta banatzeko egiturak material ez berriztagarriekin eginak daudenez, mugak azaltzen dira bere erabilpenean.

Berrikitan gaztelaniazko *Falacias Ecologistas* (Engainagarri Ekologistak) blogean muga horiez etabaidan ari zirela, alegia *lur arraroak* direlakoan urritasuna oztopo izan ote daitekeen energia berriztagarriak heda-tzeko, hortxe azaldu zen neodimio izeneko minerala. Haizearen energia biltzen duten errota modernoek hori darabiltelako.

Haizerrotek industrializazioaren aurreko mundua irudikatzen zuten, eta muga hori gaingitu behar izan zuten lehenbizi aerogeneratzaile modernoek. Energia arras merke eskuratzen zenean ekologistek beste inork ez zituen aipatu ere eginen. Beranduago, erregaiaren 1970ko krisiaren ostean, petrolioa edo nuklearra ustiatzen dituzten korporazioak berak hasi ziren eolikoak garatzen.

Eolikoaren muga bakarra haizearen kapritxoan datzala esan da maiz. Eguraldi barearekin, indarrak ez. Hesi hori ingeniariak gaingitu zuten sare elektriko zabaletan integratuz zentral termikoekin, hidraulikoekin

eta nuklearrekin elkarlanean jarririk haize-errotak. Orain aipatzen duten muga, aldiz, oso bestelakoa da.

Berez sinplea den haize-errota gero eta tamaina handiagoetan ahalik eta modurik eraginkorrenean lanean edukitzekotan, haren generadoreak sofistikatuagoa behar du izan. Esate baterako, abiadura aldagailuz hornitutako generadoreetako pieza mugikorrek azkar higitzen dira, haize-errotak matxuratu. Konponketa lan garestiak sortzen dituzte, zer esanik ez itsasoan baldin badago haize-errota.

Hori dela eta, eihera handienetako motorretan zuzeneko transmisioa usatzen da, horretarako iman bereziak ipinita. Hain zuzen neodimioa daraman altzairuz egindako imanak. Teknologia honekin generadoreek aurrekoen erdia pisatzen dute.

Neodimiozko imanak daramatzate azken belaunaldietako haizerrotek. Besteren artean, gero eta generadore handiagoak egiteko joeragatik. Ingurumenaren Europako Agentziak proposatzen duenez, 2030. urtean ohikoa izan behar du 10 megawatt baino gehiagoko haizerrotek ipintzea. Esan nahi baita, ia 200 metroko altuerako muntstroak.

AEBetan 2030erako kontsumitzen duten energiaren %20 eolikoaz izatea nahi luketen proiektuak badira, tartean *20% Wind Energy by*

Herrian hiru haize-errota erraldoi jartzearen kontrako kanpaina egin duen *Weston Turbines - Say No* taldearen gunetik hartuta dago ondoko irudia. Aldean jartzen ditu 125 metroko eihera erraldoiaren altuera batetik eta bestetik bi solairuko etxe batena, Weston herrian bertan daukaten ur deposituarena (ohiko ur biltegi bat) eta Londresen ezagunak diren hiru monumentuenak: Nelsonen zutaina, Big Ben dorrea eta London Eye behatoki mugikorra. Haize-errotak duela mende asko asmatu ziren arren, azken urteotan ingeniariak argindarra sortzeko diseinu berriz egokitu dituztenean, makina gero eta handiagoetan pentsatuz garatu dute teknologia. Mundu osoan energia kontrolatzen duten konpainiek egitura oso zentralizatuak nahi dituzte: familia bakar baten edo komunitate txikien esku funtzionatu lezaketen egitura autonomorik apenas ikusten den.


2030. Aldekoek, ingurumenaren-tzako abantailak eta sortuko liratekeen zientoka mila lanpostuak famatzen dituzte. Kontrakoeak, egin beharreko inbertsioen gogorra salatzzen. Eta benetako mugak fisikoak balira? Haizearen indarraren alderantziz berriztagarriak ez diren material ba-tzuetan?

Txinan erosi beharko duzu

Iman berezietan erabilitako neodimioa omen da *lur arraro* deituetan usuen aurkitzen dena. Askoz bereziagoak izan behar dute zerrendako gainerakoek. Arraroak, baina beharrezkoak batik bat teknologia aurreratuko tresna eta lanabesak ekoizteko.

Horiez idatzi du *The Oil Crash* izendatu arren gaztelaniaz den blogean Antonio Turiel fisikari eta matematikariak: *La guerra de las tierras raras*. Turielen ustez, ez baitira petrolioa eta gasa, oro har energi iturri fosilak, produkzio gailurrera *–Peak Oil–* iritsi diren bakarrak. Beste lehengai asko ari dira urritzen.

Lur arraroak bereziak dira, ez hainbeste munduan urri daudelako baizik haien ustiaketa konplikatu delako. Salbuespenen bat kenduta, mineral horien meategirik ez da, gehienak eskuratzen dira gai ohikoagoen babesean. Esaterako, aluminioaren produkzioarekin lotuta dago galioa, zinkarenarekin kad-



mioa, indioa eta germanioa, berunarekin tungstenoa eta molibdenoa, eta abar.

Lehengaiok modu ia testimonialean ekoiztu izan dira urte luzez, harik eta azken hamarkadotan materialen zientziak jauzi izugarriak egin dituen arte. Gaur laserretan, zuntz optikoan, telebistetan... oro har, elektronikan oinarritutako milaka aparailutan derrigorrezkoak diren lehengaien kontsumoa espontzialki ugartu da.

Mendebaldeko herrialdeetan kezkatuta daude mineral arraro gehienak gaur Txinaren esku daudelako. Haize-errotak ugartu nahi ditugu, auto hibridoak, eguzki panelak... baina horiek ekoizteko beharrezko lehengai jakin batzuk Txinak

kontrolatzen ditu. Pekineko agintariek, gainera, horietako gai batzuk esportatzea galarazi dute: mineral arraroa daraman eletrogailua saldu dezakezu atzerrian, baina minerala bera ez.

Antonio Turielek artikulura dakar lur arraroez gehien omen dakitenetako bat, *The Lifton Report* buletina argitaratzen duen Jack Lifton. Honek diosku oso gutxi direla lur arraroen merkaturak ulertzen dutenak.

Lehenago esplikatu denagatik: ez bismutoa edo telurioa, bi aipatzearen, ez dira inon ageri horien meategiak errentagarri egiterainoko kontzentrazioetan. Berun meategietan beste lur eta mineral gehiagorekin nahasian azalduko da bismutoa,

berdin telurioa molibdeno meategietan. Txinatarrek bai ulertu dute ondo mineral horien merkaturak, eta egin dutena izan da joan eta merkaturak kontrolatu, gai eta leku askotan produkzio osoa erosi eta horrekin hasi negoziatzen.

Horien garrantzia eduki al da kontuan teknologia berri batzuk eskala oso handitan zabaltzea erabaki denean? Antonio Turiel eta beste batzuek diote ezetz. Haize-errotak modernoak neodimioaren morroi diren moduan, eguzki plaka modernoak telurioa bezalako mineralen neskame dira. Baina gerta liteke horietatik aski ez egotea, edo egotekotan izugarri garesti ateratzea, errentagarritasun kalkulak hankaz gora jarririk.

Eta hori alde batera utzirik mineral hauen ekoizpenak ingurumenean sortutako kalteak. Britainia Handian *Windfarm Action Group*ek joan den urtarrilean azalduetako salaketa baten titulua: "Txinan pagatzen dute Erresuma Batuan energia garbiarekin egin esperimentera: kutsadura ikaragarria".

Turielek bukatu du artikulua Londresko *The Times*ek 2010eko otsailaren 28an plazaratutako titularrarekin: "Kontsumismoaren akabera heldu da". Iritzi hori atera zuen Leo Lewis kazetariak Tokion bildutako munduko inbertsore handien bileran. *Smartphoneak* bezala misilak biziartzat dituzten mineralak urriak dira eta Txinak kontrolatzen ditu. Txinarekin baliabideengatik gerran sartuko gara erremeriorik gabe. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Jose Ignazio Ansorena

Hator, mutil, etxera



ure bilantziko nazionalaren jatorria konplexua da. Antonio eta Juan Kruz De la Fuente anaiek jarri zuten abiapuntua *Gabon kantak* sortu zituztenean XVIII. mendea-

ren hondarretan. Durangar hauek —dantzari eta bertsolariak biak, Juan Kruz txistulari ere bai— abesti mardoska sortu zuten.

Herriaren memorian gorde eta, ehun urte geroago, Bartolomé Erzilla musikari durangarrak partituran jarri zituen. Hala ere, XX. mendearen hasieran ez ziren oso ezagunak. Resurrección M^a Azkuek Otsandion bertako bi lagun bertsio bat jaso eta, ohi zuen bezala, hizkuntza aldetik zuzenketa batzuk jarri zizkion. Jesús Guridik, 1920aren inguruan, ahots eta pianorako bertsioan argitara eman, eta geroago abesbatzetarako harmonizatu. Azken egokitzapen honen bitartez zabaltzeko eta itsatsi da Euskal Herri osoko memoria musikalean. Bide konplexua egungo bilantzikora iristeko, mundua eta bizitza bezalakoa.

* * *

Mundua eta bizitza konplexuak dira eta ulertzeko ahalegiak ez du sinplekerietarako tarterik uzten. Konplexutasuna, ordea, ez da aitzakia inork bere burua indefinizioan utz dezan, bizitzako arazo garrantzitsu guztietan aukeratu egin behar delako.

Horrelaxe gaude egun haue-
tan, preso eta biktimen kontuan,
egunero hedabideetan batzuen eta besteen aldeko aldarrikapenak entzun behar ditugularik. Propaganda, kontu honetan, bereziki mingarri gertatzen da. Pertsona askoren sufrimendu mingotsaz ari garelako, samin-
duraren ertzean bizi den pertsona ugariren alorrean. Eta propagandazaleak, euren bitartekari kazetarien laguntza zabarrak normalean, jo eta ke aritzen dira gure belarriak, eta batez ere gure bihotzak, garrakzi-
ro astintzen. Aukeratu beharra dago.

* * *

Herriarren oroimenak gorde du Franco-
ren garaian poliziak egindako gehiegikeria



DANI BLANCO

askoren gomuta. Familiako, auzoko eta adiskide askok pairatutako tratu txarrak, baita Espainiako poliziak hildako lagunak ere.

Gogoan ditu torturatutakoak, inongo errurik gabe espetxeratutakoak, euskal kulturaren alde jarduteagatik neurririk gabeko erasoak hartutakoak, seme-alaba ikusi ahal izateko milaka kilometro egin behar izan dituztenak.

Abertzale hainbaten gupida eza ere sentitu du, inor akabatzen zutenean edo jazarpena eragiten ziotenean. ETaren biktimak askoren begi izutuak nabaritu ditu hurbil.

Amorrotuta batzuetan, espantuz besteetan egoeraren zentzugabekeria ulertzen ez zutela.

Horien artean adiskide mai-
teak izan ditu, baita urrutitik ere ikusi nahi ez zituenak ere. Melitón Manzanos torturatzaileak Kongresuko Urrezko Domina duela jakiteak ezinegona sortu dio. Eta Franco edo Fraga Iribarne ohean hiltzea, inongo barkamenik eskatu gabe, nazkagarri gertatu zaio. Jose María Ryan, Miguel Ángel Blanco edo José Javier Mujikaren erailketak arbuiatu ditu. Baina denboraren ibilera lausotzen ari da oroitzapen pilaketa hau.

* * *


Orain, Bartolomé Erzillak, Resurrección M^a Azkuek eta Jesús Guridik egin zuten bezala-

tsu, herriarren oroimenak gordetzen dituen horiek denak partituran jartzeko garaia iritsi da. Denok batera kantatzeko moduko abesti hunkigarria sor dadin abesbatzarako moldaketa behar dugu. Gupidaren harmonia aldarrikatzen duen estetikan oinarritua, gure onenak etorkizunera proiektatuko dituen abestia. Guridi bezalako musika maisu handiak ekin behar lioke lan horri. Izango al da horrelakorik gure artean? Agertzen den bitartean, neure aukera eginga dut: Hator, hator, mutil eta neska, etxera. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Esait

6 kamiseta opari

Oiartzun GIPUZKOA

www.esait.org

3



Etxe

Haize berri bat

5 CD opari

www.baga-biga.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2307. Argia)

ATXURRA hotela

- Elena Iturbe Bengoa (Arrasate)

ESNE BELTZA 3 kolpetan CD+DVDa

- Kerman Rekondo Arzallus (Usurbil)
- Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)
- Olatz Arruabarrena Izagirre (Errearteria)
- Imanol Irigoien Aranberri (Oiartzun)
- Bittor Kortabitarte Diego (Bilbo)

OKATXU kamiseta

- Ostolaza Udal Liburutegia (Deba)
- Juankar Bermejo Mateos (Laudio)

11 ITZULPEN 2012ko agenda

- Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-lumo)
- Txeibis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)
- Jabier Azkarate Ugalde (Ordizia)
- Iñaki Goñi Irazusta (Donostia)
- Joseba Berriotxo Alberdi (Zornotza)
- Eduarne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- Yolanda Juaristi Arietaleanizbeaskoa (Bergara)
- Andoaingo Udala Euskara Zerbitzua (Andoain)

ARTEZ euskara zerbitzua 2012ko mahai takoa

- Alfredo Navarro Los Arcos (Iruñea)
- Joxemari Muxika Arrieta (Arrasate)
- Maddalen San Miguel Otegi (Zaldibia)
- Andres Odriozola Lizaso (Zarautz)
- Manoli Zaldua Muruaga (Hernani)
- Larrako Aek Euskaltegia (Bilbo)
- Jose Luis Hormaetxea Albioniga (Bermeo)
- Aintzane Linaza Etxeberria (Gasteiz)
- Mikel Escudero Aizpurua (Deba)
- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

